



**Honela dantzaten  
dira Emakumeak  
Bizcayan**

**Así bailan las  
Mujeres en  
Bizcaya**



**IÑAKI IRIGOIEN ETXEBARRIA**



# Honela dantzatzen dira emakumeak Bizcayan

## Así bailan las mujeres en Bizcaya



IÑAKI IRIGOIEN ETXEBARRIA



BILBAO 2019

- © **Idazkera / Texto:** Iñaki Irigoien  
© **Argazkiak / Fotografias:** Argazkien autoreak / Autores de las fotografías  
© **Edizioa / Edición:** Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco  
Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.  
Bilbao, 2019

Beraz, hauen aldezaurreko eta idatzizko baimenik gabe ezin da argitalpen honen osoko zein zatikako aldakirik atera, ez mekanikazko, fotokimikazko, elektronikazko, imanbidezko, eletra-optikazko, argazki-aldakizko ez beste inolako eratako irudigintza-modutan eraso edo zabaldu.

Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, ni en todo ni en parte, ni registrada en, o transmitida por, un sistema de reproducción de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sea mecánico, fotoquímico, electrónico, magnético, electróptico, por fotocopia, o cualquier otro.

**Edición y maquetación:** Creastudio. Comunicación & Publicidad. Bilbao  
**Itzulpena / Traducción:** Labayru Fundazioa.

**Azalako argazkiak / Fotos portada:**

- El Código de los Trajes. Trachtenbuch. Edición facsímil. Ediciones Grial. Valencia, 2001
- Lekeitiko andreen aurrekua Sanantolinetan / Aurreku de mujeres en San Antolines. Lekeitio, 1945  
Agiritegia / Archivo: Iñaki Irigoien



## Honela dantzatzen dira emakumeak Bizcayan,

esaldi horixe ageri da, alemanez idatzita, Christoph Weiditzek 1529. urte aldera egindako marrazki baten goialdean. Emakume gazte bat irudikatzen da marrazkian, dantzatzeko plantak egiten, besoak horretarako jarrera egoki batean dauzkala. Esan dezakegu Euskal Herriko dantzari baten irudirik antzinakoena dela, aurki daitezkeen guztien artean. Egilea aleman bat izan zen, eta hark ondu zuen euskal emakumezko figurei buruzko bilduma nagusietako bat, beren adar-formako buruko primitiboekin irudikatuta. Hori dela eta, oso ezaguna eta estimatua da. Zalantzarik gabe, emakumeak euskal dantzan duen parte-hartzearen erakusgarri nabarientza da, eta oso antzinako garai batean.

Pedro Garmendiak lan xehe bat egin zuen Cristoph Weiditz buruz (1498-1559), hau diosku: *“jakina da Estrasburgon jaio zela, eta Juan Weiditz zur-eskultorearen semea eta Hans Weiditz marrazkilari eta grabatzailearen*

## Así bailan las mujeres en Bizcaya,

es la traducción del encabezado que sobre uno de sus dibujos realiza Christoph Weiditz en torno al año 1529. En él se representa a una joven, con ademán de bailar, con los brazos en una posición apropiada para ello. Podemos decir que es la imagen más antigua conocida de un o una *dantzari* del País Vasco. Su autor es un alemán autor de una de las colecciones de láminas más interesantes conocida sobre figuras femeninas con tocados corniformes primitivos del ámbito vasco, siendo por ello muy apreciada, y la muestra más evidente de la participación activa de la mujer en la danza vasca desde una época muy antigua.

Según Pedro Garmendia, que publicó un trabajo sobre Cristoph Weiditz (1498-1559) dice que: *“se sabe que nació en Estrasburgo, que era hijo del escultor en madera Juan Weiditz y hermano del dibujante y grabador Hans Weiditz. Parece que Cristóbal fue en sus prime-*



anaia zela. Antza denez, Cristobal hasieran domina-egile aritu zen, eta gero zur-grabatuak egiteari lotu zitzaion. Austriako zilargileek eragozpenak jarriko zizkioten, nonbait, dominak egitea bitxigintza-lantzat jotzen baitzuten, eta horregatik Colmar Helmschmiedekin joan zen Espainiara”<sup>(1)</sup>. Azken hori armagilea zen, eta Karlos V.ari aitak Hantburgon landutako armadura bat ematera etorri zen. 1529 inguruan izan zen hori. Espainian hainbat marrazki egin zituen, jantzi-album bat argitaratzeko asmoz. Azkenean haren marrazkiekin argitaratu zen liburuak (*Das Trachtenbuch Christop Weiditz von seinen Reisen nach Spanien und den Niederlanden 1531-32*) 154 estampa dauzka. Horien artean, 24 inguru dira euskal figurak. Irudi gehienak emakumezkoenak dira; antzinako jantziak daramatzate soinean, adar-formako burukoekin gehienbat. Marrazki bakoitzean, egileak ohar bat jartzen du, modelo zein lurraldetakoa den aditzera emateko. Kasu honetan, dantzaria dela eta *Bizcaykoa* dela dio. Hala ere, garai hartan, izendapen horrek euskal lurralde guztiak ere har zitzakeen barnean. Ez da esaten zer dantza-mota egiten duen, baina, figuragatik, Lekeitioko neskek gaur egun beren aurrekuan egiten dutenaren oso antzekoa denez, litekeena da horren tankerako dantza bat izatea. Izan ere, dantza horretan gehienbat emakumeek parte hartu izan dute, bai gizonek haiei

ros tiempos un medallista y que luego se dedicó al grabado en madera. Debió ser molestado por los plateros de Austria, que consideraban la ejecución de medallas obra de orfebrería, y por esta razón acompañó a Colmar Helmschmied a España”<sup>1</sup>. Éste era armero y vino a entregar a Carlos V una armadura labrada por su padre en Hamburgo hacia 1529. En este viaje Weiditz realizó una serie de dibujos para la elaboración de un álbum de trajes. El libro publicado finalmente “*Das Trachtenbuch Christop Weiditz von seinen Reisen nach Spanien und den Niederlanden 1531-32*” contiene 154 láminas, de las cuales 24 son relativas a nuestro País. La mayoría son de mujer con sus trajes antiguos, generalmente con tocados corniformes. En cada uno de los dibujos el autor hace una indicación para designar el lugar de procedencia. En este caso dice que es en *Bizcaya*, denominación que en la época designaba al espacio geográfico vasco. No se indica que tipo de danza realiza, aunque por su figura es semejante a la que actualmente ofrecen en su *aurresku* las muchachas de Lekeitio. Realmente es la danza en la que generalmente más han participado las mujeres, tanto siendo ellas las obsequiadas por los hombres o siendo ellas las que lo dirigen, destinado a los hombres.

Ésta ha sido la danza social más importante de Euskal Herria, en la que participan mezclados hombres y mujeres.





Andren-aureskua plazan. Bermeo 1915. “Bermeo Argazki Zaharrak 1885-1936” © Bermeoko Udala

eskaintzen zietenean, bai haiek zuzentzen zituztenean, gizonei eskaintzeko.

Horixe izan da Euskal Herriko dantza sozialik garrantzitsuenak, zeinean gizonak nahiz emakumeek batera parte hartzen baitute. Dantza-mota horri buruz badira oso antzinako datuak. Esaterako, Markinako 1559ko kontuetan, Frantziako erregearekin bakea egin zela-eta ospatu zen jaiaren gastuen inguruan azalpen hauek ematen dira: *“hirian, ingurumarietan, zelaietan zein hariztian hiriko bizilagun asko dantzatu ziren”* ... “bai gizonak eta emakumeak, eta neskatilak eta mutilak... *“danbolin-soinuan nahiz kantatzen ari ziren beste pertsona batzuen soinuan”* <sup>(2)</sup>. Na-

Sobre este tipo de danza existen datos históricos muy antiguos. Por ejemplo, en las cuentas de Markina de 1559, por los gastos de la fiesta celebrada por la paz con el rey de Francia: *“por la dicha villa e arrabales e campos e robledal danzaron muchos vecinos de la dicha villa (...) así hombres como mujeres e doncellas e mozos (...) al sonido del tamboril e de otras personas que cantaban”*<sup>2</sup>. De estas notas podemos destacar que se danzaba tanto al son del tamboril como de canciones, bailado por hombres, mujeres, doncellas y mozos. La pregunta que nos surge es si danzaban todos juntos o se turnaban en sus danzas según características de sexo y edad, como indicará Juan Ignacio Iztueta siglos después.



barmentzekoa dugu danbolin-soinuan zein kantuaren soinuan dantzatzeko zela, eta gizonak, emakumeak, neskatilak zein mutilek egiten zutela dantzan. Gogora datorkigun galdera da ea denek batera egiten zuten dantzan ala txandaka aritzen ziren, sexuaren eta adinaren arabera, Joan Ignazio Iztuetak azalduko digunez XIX.aren mendearan hasieran.

1588.ko urtean, Iburguen-Cachopin Kronikak horrelako dantzen modua aurkeztu zigun, bizkaitar dantza: “*haie-tako askok eta dantzatu nahi duten guztiek elkarri eskutik helduz, eta dantza-korro handi bat eratuz horrela, bi gizonen artean emakume edo neskatila bat sartu eta eskutik hartuta*”<sup>(3)</sup>. Elkarri eskutik helduz esaldia, hain zuzen, erabili zuten geroago apezpikuek parrokiaren bisitaldiei buruz egiten zituzten autoetan, gizon eta emakumeen arteko dantza mistoak definitzean, halako dantzak kontrolatu edo debekatu nahian zebiltzala eta. Egoera koreografiko hori funtsezkoa da gure sokadantzetan; haie-tako batzuek, hain zuzen, aurreku izena hartzen dute, hots, «aurre(ne)(ko) eskua». Erabat soziala den dantza-mota horri, gizon eta emakumeen artean dantzatutakoari, bere izaera ematen diona da aurreneko eskua daukana –“aurreku”–, hau da, zuzentzen duena. Horrek nabarmentzeko aukera ematen dio aurreku doanari. Hotsandiko unean, kolektibitate osoa plazan zegoenean, alkatea izan ohi zen aurreku,

En 1588, las Crónicas de Iburgüen Cachopin presenta la forma que adquieren este tipo de danzas vizcaínas “*trabándose por las manos muchos de ellos y todos los que quieren danzar y así hacer un muy grande corro de danza, metiendo y tomando por las manos a una mujer o moza entre medias de dos hombres*”<sup>3</sup>. La frase *trabándose de las manos* será usada posteriormente por los obispos en sus autos de visita a las parroquias, para describir las danzas mixtas, entre hombres y mujeres, que desean controlar o prohibir. Esta forma coreográfica es el fundamento de nuestras *soka dantza*, algunas de las cuales toman la denominación de *aurreku* o *primera mano*. Lo que termina de dar carácter a este tipo de danza, plenamente social realizada entre hombres y mujeres, es quién ocupa dicha primera mano, es decir la dirección de la misma, *aurre-esku*. Ello daba la oportunidad de destacar al que lo detentaba. En momentos solemnes en los que toda la colectividad se encontraba en la plaza solía ser el alcalde, dando a entender con ello que poseía la autoridad en el municipio. A veces, podía ser el cura, como se indica en una carta escrita en 1652 desde Gizarburuaga dando cuenta de las fiestas del pueblo. En ella se dice que el vicario de Lekeitio dirigió la danza principal en la que tomaron parte todos los vecinos con sus mujeres, bailando en la *retaguardia* o última mano, *atze-esku*, el *andiki* o señor del lugar. Hay que decir





udalerriko agintea berak zuela ematen zuten aditzera horrela. Batzuetan, abadea ere izan zitekeen, 1652. urtean Giza-buruagatik idatzitako gutun batean esaten denez, herriko jaien berri ematean. Han kontatzen da Lekeitioko bikarioak dantza nagusia zuzendu zuela, eta bizilagun guztiek parte hartu zutela, emazteak lagun, eta atzeko aldean –“atzesku”– herriko “handikia” edo jauna zihola. Esan behar da dantzan sokako azken tokia hartzeak ere garrantzia duela. Gero, afaldu eta gero, bikarioa berriz ere dantzatu zen, eta “*artazika eta itzulika jo eta su ibili zen*”<sup>(4)</sup>. Antza, dantzari fina eta oso zalea zen gure elizgizona. Bi “zerbitzariak” ere zeregin garrantzitsua dute, sokako hasierako kideentzat bikoteki-deak ateratzeko ardura baitute, sexu batekoak edo bestekoak normalean, gizonak edo emakumeak.

*Bizcaytar* dantzari baten figura aurkezten digunean Weiditzek adierazitakoa kenduta, dokumentu horietan guztietan ez da aipatzen emakumeek dantza zuzentzen zutenik. Beti gizonak aipatzen dira dantzaren abiarazletzat, nahiz eta gero emakumeek osatu. Bertako idazleen artean, J. Antonio Zamakola bizkaitar historialariak 1818an idatzitako lanera iritsi behar dugu, ikusteko emakumeek ere abiarazten eta zuzentzen zituztela. Bere historian, hain zuzen, hau kontatzen digu: “*dantza horiek mutil ezkongaiak hasi ohi dituzte, ondoren neska ezkongaiak, ondoren*

que en esta danza también tiene importancia el que ocupa el último lugar de la cuerda. Sigue la carta: “*Después de cenar, volvió a bailar el vicario y se hizo astillas a cabriolas y vueltas*”<sup>4</sup>. Al parecer era un buen bailarín y gran aficionado nuestro clérigo;. Es también importante el papel de los dos *serbitzaris*, los encargados de sacar a la cuerda las correspondientes parejas para los danzantes iniciales, normalmente de un solo sexo, hombres o mujeres.

Salvo lo mostrado por Weiditz, ofreciéndonos una figura de danzarina *Bizcayna*, en los documentos no se hace referencia a que la danza sea dirigida por mujeres. Siempre se refieren a hombres como iniciadores de la misma, aunque luego la completan las mujeres. Entre los cronistas locales, tenemos que esperar al historiador vizcaíno J. Antonio de Zamakola, que escribe en 1818, que las mujeres también las iniciaban y dirigían: “*estas danzas empiezan comúnmente por los jóvenes solteros, siguen después las solteras, luego los hombres casados, y por fin las mujeres casadas si quieren bailar, y continúan después toda una tarde sin guardar más el orden alternativo*”<sup>5</sup>. En 1824 J.I. Iztueta completará esta información al presentarnos cinco tipos de danzas según como y quienes las inician y dirigen. En la misma línea otros autores del país nos presentan danzas dirigidas tanto por hombres como mujeres. Con anterioridad,



*gizon ezkonduék eta, azkenik, emakume ezkonduék, dantzatu nahi badute, eta arratsalde guztia jarraitzen dute gero, txandakako hurrenkera hori gorde gabe*<sup>(5)</sup>. Horrekin aditzera ematen digu zeinek abiarazten eta, ondorioz, zuzentzen zituzten dantzak. 1824.urtean, J. I. Iztuetak informazio hori osatu zuen, bost dantza-mota aurkeztu zizkigunean, zeinek hasten eta zuzentzen zituzten aintzat hartuta. Halaber, Euskal Herriko beste egile batzuek ere gizonek zein emakumeek zuzendutako dantzen berri eman ziguten. Lehenago, atzerriko bidaiari batzuk ere izan ziren, gure jai-dantzak deskribatzean, emakumeek izaten zuten parte-hartze garrantzitsua nabarmendu zutenak. Horren erakusgarri bat eman zigun C. A. Fischerrek, 1797an Bilboko erromeria bat aipatu zuenean. Bi ilara egiten zirela dio, bata neska eta andreana, eta bestea, gizonezkoena. Emakumeei buruz zera dio: *“ilara bat ikusten duzu, neska eta andreek osatua, eskutik helduta eta leerro batean doazela, baina aurrenekoak soilik, dantzari nagusi gisa, egiten ditu noizean behin pauso batzuk, haiek egitean lagunengana itzultzen dela, besteak astiro dabiltzan bitartean*<sup>(6)</sup>.

XIX mendearen bigarren erdian datuek normaltasunez jarraitu zuten aditzera ematen bazirela emakumeek zuzentzen zituzten dantza batzuk. Adibidez, Portugaleten, 1857. urtean jaiak antolatatu ziren herrira uda-pasa joaten ziren

algunos viajeros extranjeros al describir nuestras danzas de fiesta destacaban en ellas la principal participación de las mujeres. Una muestra de ello nos la ofrece C.A. Fischer, cuando en 1797 trata sobre una romería en Bilbao. Habla de la creación de dos filas una de muchachas y mujeres y otra de varones. Refiriéndose a las mujeres indica: *“usted ve una fila de muchachas y mujeres que se agarran de las manos y se mueven en una línea, mientras que sólo la primera, como destacada danzarina, hace algunos pasos de vez en cuando, durante las cuales ella se vuelve hacia sus compañeras mientras las demás caminan lentamente*<sup>(6)</sup>.

En la segunda mitad del siglo XIX se siguen describiendo con toda normalidad la existencia de danzas dirigidas por mujeres. Ejemplos como el de Portugalete en 1857 recogido en una carta en el que se informa de las fiestas organizadas entre los bilbaínos que acuden a la villa a pasar el verano: *“baste deciros que se bailaba hasta el aurresku, el cual lo hizo un día primorosamente Antonia la modista, mujer de Emilio*<sup>(7)</sup>. El de 1875, con motivo de una victoria liberal en Cataluña en el que un periódico bilbaíno recoge la noticia de la fiesta que se organiza en dicha villa de Portugalete, y destaca *“el aurresku de las señoras, el cual fue calurosamente aplaudido por los concurrentes*<sup>(8)</sup>. Y el relativo a Areatza, villa del valle de Arratia, en 1872 en el que se relata el sucedido de unos bil-



bilbotarren artean, eta gutun batean hauxe kontatzen zen: “*aski da esatea aurrekua ere dantzatzeko zela; hain zuzen, egun batean ezin hobeto egin zuen Antonia josleak, Emilioren andreak*”<sup>(7)</sup>. Urte batzuk geroago, 1875ean, Katalunian liberalek garaipen bat izan zutelako jakitean, Bilboko egunkari batek Portugalen bertan antolatuta zen jaiaren berri jaso zuen, eta andreen aurrekua nabarmendu zuen, zeina ikusleek sutsuki txalotu zuten<sup>(8)</sup>. Bizkaiko beste toki batean, Arratiako Areatzan, 1872. urtean txangoan joanda, bilbotar batzuek bertakoekin batera aurreku bat antolatzeko asmoa zuten, eta, baimena eskatu zutenean, han non ikusi zuten plaza hartua zutela beren aurrekua dantzatzeko ari zirenen neska batzuek<sup>(9)</sup>.

Harrigarriena da, arrazoi sendorik baxterez gabe, XIX. mende laurden amaieratik aurrera esan izan dela emakumeak ez duela garrantzizko parte-hartzerik izan dantza honetan, omendua izateko rola izan ezik. Izan liteke hori hala izatea, gure folklorista asko elizgizonak izan direlako, hots, nolabaiteko puritanismo moral baten jabe, edo, halaber, garai bateko erromantizismoaren ondorioz, emakumeari rol jakin bat esleitu baitzitzaion, are neurri handiagoan diktadura frankistapean. Gerta liteke hala izatea, era berean, haiek idatzi zutenean pentsatzea hori ez zelako sarritan gertatzen, nahiz eta, egia esan, gizonezkoek hasitakoetan bikotekide aritzeaz gain,

baños que acuden de excursión con la intención de organizar un *aurreku* y se encuentran que, al pedir permiso para hacerlo en la plaza, estaba ya ocupada por unas chicas que están bailando su *aurreku*<sup>9</sup>.

Lo más sorprendente a tenor de lo expuesto y sin una razón sólida aparente, es que, a partir del último cuarto del siglo XIX, se promovió la idea de que la mujer no ha tenido ningún papel importante en el desarrollo de la danza, solamente la de ser homenajeadas. La razón pudiera estar en que muchos de nuestros folkloristas han sido clérigos, con cierta carga de puritanismo moral, o también por el romanticismo empleado por algunos cronistas, otorgando a la mujer un determinado papel social, agudizado durante la dictadura franquista. También pudiera ser, que, cuando ellos escriben se pensara que no se practicaba con tanta asiduidad, aunque la realidad es, que la mujer, además de participar como pareja en los bailes de los hombres, ha iniciado y dirigido el *aurreku* completando la cuerda con hombres, como lo muestran los datos que a continuación presentamos, precisamente, todos ellos, de este periodo.

Comenzaremos con lo que nos transmiten los folkloristas sobre la participación de la mujer en el *aurreku*. El Padre Donostia señala que: “*el hecho es que la mujer vasca no baila en el verda-*



emakumeek aureskua askotan abiarazi eta zuzendu dituzten, soka gero gizonekin osatuz. Jarraian aurkeztuko dugun moduan, datu ugari hori erakusten dute. Hain zuzen ere, guztiak dira garai horretako datuak.

Hasteko, emakumeek aureskuan zuten parte-hartzeari buruz folklorista horiek zer zioskuten aztertuko dugu. Aita Donostiak hau eman zigun aditzera: *“euskal emakumeak dantza egin, ez du egiten guretzat hitzak duen zentzuan. Dantzan egoten da, eta parte hartzen du, baina, esan bezala, ‘dantzatua izateko’, haren aurrean gizonetakoak bere trebezia erakusteko”*<sup>(10)</sup>. Beste elizgizon batek, Bizkaiko historialaria bera, Estanislao Labairuk, hain zuzen, are urrunago joan, eta honako hau esan zuen: *“euskal dantzak, gehienbat, beraien izaera eta jitea direla-eta, edo gizonenak bakarrik edo emakumeenak bakarrik izaten dira; primitiboetan, ez dago sexuen arteko nahasterik”*<sup>(11)</sup>. Hori ez da inola ere egiazkoa, sexuen arteko nahastea sokadantzen oinarria delako. Interpretazio horiek oso hedaturik egon dira euskal kulturaren XX. mendeko ikertzaile nagusien artean. Juan Carlos Guerrak horrelako dantzetan emakumeek duten rola era guztiz erromantiko batean definitu zuen, honela parte hartzen zutela azalduta: *“estatua bizidun baten eran, ikusleen diskrezio gabeko begiradek urdurituta, begiak apal, lotsazko umiltasunaren ondorioz ... jasotzen duen*

*dero sentido que la palabra tiene entre nosotros. Asiste al baile y toma parte en él; pero como bien se ha dicho, es para “ser bailada”, para que ante ella muestre el varón sus habilidades”*<sup>10</sup>. Otro clérigo, historiador vizcaíno, Estanislao de Labayru, irá más lejos aún al decir que *“los bailes bascos, en su mayor parte, y por su naturaleza y carácter son de hombres solos o de solas mujeres; en los primitivos no hay mezcla de sexos”*<sup>11</sup>. Hecho totalmente incierto, puesto que la mezcla de sexos es la base de las soka-dantza. Estas interpretaciones han estado muy extendidas entre los principales estudiosos de la cultura vasca del siglo XX. Juan Carlos Guerra es el que describe de forma romántica sobre el papel de la mujer en este tipo de danzas, indicando que lo hacen *“en actitud de estatua viva, a quien conturban las miradas indiscretas del público, bajos los ojos por la modestia ruborosa (...) por el honor de que es objeto, se deja bailar como la diosa primitiva, aplaudida por la multitud ... bella y graciosa en sí misma, y por sí misma, sin acción que profane la gloria, sin ademan que destruya la apoteosis”*<sup>12</sup>.

Leyendo a estos autores, sorprende que no recojan escritos históricos en los que se muestra a la mujer manteniendo una posición mucho más activa que la ofrecida por ellos. Volviendo a Juan Ignacio Iztueta que en 1824 escribe su libro sobre las danzas guipuzcoanas, señala las distintas variantes de este tipo



*ohoreagatik, jainkosa primitiboaren eran dantza egin diezaioten uzten du, jendetzaren txaloen artean ... berez ederra eta graziaz betea, eta bere buruz, loria profana dezan ekintzarik gabe, apoteosia urra dezan keinurik gabe”<sup>(12)</sup>.*

Izen handiko egile horiei irakurrita, harriarria da zenbait idazki historik eza-gutu ez izana; idatzi horietan emakumea haiek azaldu baino askoz eginkizun aktiboago batean. Esaterako, Joan Ignazio Iztuetak 1824an idatzi zuen bere liburua Gipuzkoako dantzei buruz, eta berak dantza-mota horren aldaerak aipatzen ditu, doinu desberdinak ere erabiltzen zirela, dantzok zeinek zuzentzen zituen kontuan hartuta. Bat gizonak hotsandiz zuzendutakoarena litzateke (gizon-dantza); antzeko beste bat, gazteek zuzendutakoarena (gazte-dantza); hirugarrena, andreena (etxeandre-dantza); laugarrena, hainbesteko hotsandirik gabe, galaiena (esku-dantza galaiena); eta bosgarrena, ezaugarri berekin, neskatxena (esku-dantza neskatxena)<sup>(13)</sup>. Egia da egileak dioela andre ezkonduak, normalean, herriko jaietako hirugarren egunean egiten zirela dantza beren senarrei, garai hartan emakumei bereziki eskainitako eguna baitzen, herri batzuetan oraindik gogoratzen edo egiten duten bezala.

Resurrección María Azkue gure folklo-reaken beste ikertzaile handi batek, bera ere elizgizona, Iztuetaren lana irakurrita

de danza, usándose en ellas melodías diferentes según quienes toman parte activa en la dirección de las mismas. Una correspondería a la dirigida solemnemente por los hombres *Gizon dantza*, otra de características similares, por jóvenes *Gazte dantza*, la tercera por las señoras *Etxe-andre-dantza*, la cuarta, sin tanta solemnidad, por los galanes *Galaien esku-dantza* y la quinta, de las mismas características que la anterior, por las chicas *Neskatxen esku-dantza*<sup>13</sup>. Es cierto que este autor señala que, generalmente, las señoras casadas bailan a sus maridos el tercer día de las fiestas patronales, dedicado en dicha época exclusivamente a las mujeres y que, en algunos pueblos aún recuerdan o practican.

Llama también la atención que otro gran investigador de nuestro folklore Resurrección María de Azkue, también clérigo, habiendo leído al mencionado Iztueta, y conociendo, por tanto, que las mujeres dirigían la *soka dantza*, no conceda importancia al hecho de que, en su villa natal, Lekeitio lo bailasen en la festividad de San Juan, no recogiendo sus melodías en la publicación de su *Cancionero Popular*, premiado en un concurso en 1915. Al intentar, junto con el grupo Zerutxu Dantza Taldea de Markina, recuperarla en 1974, se revisaron sus publicaciones buscando estas melodías y la única localizada está en una publicación del semanario *Euskal-*



zeukala eta jakinda, beraz, emakumeek sokadantza zuzentzen zutela, ez bidezio eman garrantzi handirik beraren jaioterrian, Lekeitio, San Joan egunean dantzan egiteari, eta ez zituen haien doinuak jaso bere herri-kantutegi arruntean, zeinek lehiaketa batean saria jaso baitzuen, 1915.ean. Markinako Zerutxu Dantza Taldearekin batera, 1974. urtean, dantza berreskuratzen saiatzean, haren argitalpenak arakatu ziren, dantzaren doinuen bila, aurkitzeko esperantza genuen eta. Hari buruzko erreferentzia bakarra hark zuzendutako *Euskalzalea* astekariko argitalpen batean dago, “Euskerazko eresiak” izenburupean. Azkuek bilduma horretako pieza bati “Neska-dantzea” izenburua ematen dio, eta haren oinean aditzera ematen digu Lekeitio, San Joan eguneko goizean, doinu horrekin berearekin, danbolinak jota, emakumeek aureskua eta gainerako dantzak egiten zituztela (“emakumaak auresku ta guztiko dantzea egiten dabe”). Baina hori Lekeitioko txistulari zaharrek eman zizkiguten hiru doinuetako bat baino ez zen. Beste biak, *danbolinen rondo* gisa jasotzen ditu kanta hauten bere bilduman, aipatu gabe Lekeitio nola erabiltzen ziren <sup>(14)</sup>. Nabaria da bazekiela existitu existitzen zirela, baina ez du era agerian azaltzen zer gertatzen zen, doinu batzuk mozorrotuz baizik.

Sarrera honen ondoren, eta aurreko historialari horietako askoren jarrean

*zalea* que él dirigía, titulada *Euskerazko eresiak*. Azkue denomina a una de las piezas de esta colección como *Neska-dantzea*, y al pie de ella nos indica, que en Lekeitio la mañana del día de San Juan, al son de esta misma melodía tocada por el tamboril, las mujeres hacen el *auresku* y demás danzas “*emakumaak auresku ta guztiko dantzea egiten dabe*”. Pero esta melodía solamente corresponde a una de las tres que viejos *txistularis* de Lekeitio nos habían proporcionado, las dos restantes las publica bajo el título de *Rondo de tamboriles* en su colección de canciones selectas, sin ninguna mención al uso que de ellas se hacía en Lekeitio<sup>14</sup>. Es evidente que conocía su existencia, pero no presenta de forma detallada el hecho, sino más bien la enmascara.

Frente a estas posiciones de muchos de los cronistas, presentamos citas y comentarios que muestran la intervención de las mujeres en la *soka-dantza*, siendo ésta bastante más importante y genérica de lo que se ha venido afirmando. Para ello, se han revisado las hemerotecas recogiendo las noticias de prensa de finales del siglo XIX y principios del XX, encontrando numerosos datos que confirman el hecho de que las mujeres dirigían el *auresku*. Trataremos de presentar lo recogido, principalmente de la prensa bilbaína, así como la importancia que se daba *al auresku* en las fiestas y romerías. Añadiremos que,





### 38.-Rondo (II)

Andante mosso grazioso

The musical score is written for piano in 2/4 time. It begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The tempo is marked 'Andante mosso grazioso'. The score consists of six systems of music. The first system shows the initial melodic line in the right hand and a rhythmic accompaniment in the left hand. The second system continues the melody with some chordal accompaniment. The third system features a more complex rhythmic pattern in the right hand and includes a 'rit.' (ritardando) marking. It concludes with two first endings, labeled '1.' and '2.'. The fourth system is marked 'Fin.' and shows a change in key signature to two flats (Bb). The fifth system continues in the new key and also includes two first endings, '1.' and '2.'. The sixth system concludes the piece with a final cadence in the new key.

R.Mª de Azkue: "Cancionero Popular Vasco". "Rondo de tamboriles"



aurrean frogak agertzeko xedez, hainbat datu historiko aurkeztuko ditugu jarraian, emakumeek sokadantzan izandako parte-hartzea askoz handiagoa eta arruntekoa izan dela erakusten dutenak. Horretarako, azkenaldian aztertu ditugun XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako prentsa-idazkiak hartuko ditugu oinarri. Halakoetan, datu asko eta asko aurkitzen ditugu, emakumeek aurrekuak zuzentzen zituztela frogatzen dutenak. Batez ere Bilboko prentsan jasotakoak aurkeztuko ditugu, eta jai eta erromerietan aurrekuari ematen zitzaion garrantzia ere utziko dugu agerian. Gehituko dugu gizonezkoek egindakoak ugaria-goak eta, nolabait, garrantzitsuagoak izan direla, maila sozial nagusiago bat egokitu izan baitzaie, jakina denez.

Izan ere, olgetazko uneetan gizonek eta emakumeek elkarrekin harremanak ezarri eta elkarri abegi ona egiteko helburuaz gain, aurreku edo sokadantza beste une solemneago batzuetan ere erabili izan da, dantza zuzentzen duenaren edo dantza eskaintzen zaionaren aginte edo garrantzia agerian jartzeko erritu moduko batean<sup>(15)</sup>. Horrelako xehetasunak J. I. Iztuetak eman zizkigun lehendik ere, eta aurkeztu ditugun erreferentzia askotan ageriko dira. Horrekin, emakumeek zuzendutako aurrekuei buruzko datuak eman baino lehen, dantza-mota horrek gure herrian izan duen funtzio soziala testuinguruan

son más numerosos y en cierto modo más importantes los realizados por los hombres, dado que, como todos sabemos han mantenido una posición social superior.

El aurreku o soka-dantza, “independientemente de su función de relacionarse y obsequiarse hombres y mujeres entre sí en momentos de diversión, también se ha desarrollado, en otros momentos más solemnes, una especie de baile ritual en el que se manifiesta la autoridad o importancia del que dirige la danza o a quien se le obsequia con ella”<sup>15</sup> Referencias de ello, anteriormente descritas por Juan Ignacio Iztueta las vamos a encontrar en la prensa. Con ello trataremos de contextualizar la función social que este tipo de danza ha significado en nuestro país. No solamente se ha bailado por diversión, sino que también ha tenido funciones y significados más amplios.

En 1860, el periódico *Euscalduna*, describe la recepción que la villa de Durango realiza al tercio vascongado que vuelve de guerrear en Marruecos, después de lograr la victoria. Entre los festejos organizados describe “*el baile largo o aurreku que estaba anunciado para el mismo día, dio principio a la una y cuarto en punto, llevando el aurreku y el atzescu dos individuos del Ayuntamiento; todos los que formaban la cadena vestían de negro: al primero hizo pareja la seño-*



kokatzea dugu helburu. Ez da bakarrik dibertsiorako dantzatu; askotan xede eta esanahi zabalago batzuk ere izan ditu.

1860. urtean, *Euscalduna* egunkariak tertzio baskongadoari Durangok egin zion harrera deskribatzen digu, Marokoko gerratik itzuli zenean, garaipena lortu ondoren. Antolatutako ospakizunen artean hau aipatzen du: “*egun bererako iragarrita zegoen dantza luze edo aurresku ordu bat eta laurdenetan hasi zen, Udaleko bi pertsona zirela aurresku eta atzesku; katea eratzen zuten guztiak beltzez jantzita zeuden: bataren bikotekidea 2. komandante Iturmendi jaunaren andrea izan zen, eta bestearen bikotekidea, Pedro de Gorostiza jaunarena, gainerakoan herriko hainbat neska ezkongai galantekin osatuta dantza*”<sup>(16)</sup>.

Portugaleten, 1882. urtean, kronista poztu egin zen jaiak zapuztu zituen euriagatik, honako hau gehiturik: “*ongi etorri ura, aurreskua ikustea galarazi digun arren, tradizioaren arabera, udalbatzako kideek dantzatzekoa*”<sup>(17)</sup>. Hurrengo urtean, Isabel II.a erreginaren ohorez, aurreskua dantzatu zen Lekeitioko plazan, parte-hartzaile hauekin: “*hamabi bikote, euskal dantza tradizional honetan trebeenetakoak, bai erregina andreak, bai haren zerbitzukoek, asko txalotu zituztenak*”<sup>(18)</sup>. Urte gutxira, beste erreferentzia bat dugu Gernikan; han, aurreskua “*Diego de Anitua alkate jaunak dantzatu zuen, Montefuerteko*

*ra del 2º comandante Sr. Iturmendi y al segundo la de D. Pedro de Gorostiza, completando el baile agraciadas jóvenes solteras de esta villa*”<sup>16</sup>.

En Portugalete, en 1882, el cronista se alegra de la lluvia que había deslucido las fiestas, añadiendo: “*bienvenida sea el agua, aunque nos haya privado de ver el aurresku que, conforme a tradición, era de esperar bailasen los individuos de la corporación municipal*”<sup>17</sup>. Al año siguiente la reina D<sup>a</sup> Isabel II, preside el *aurresku* que se baila en la plaza de Lekeitio, en la que toman parte “*doce parejas de las más peritas en la tradicional danza vascongada, las cuales fueron muy aplaudidas así por S.M. como por las personas de su servidumbre*”<sup>18</sup>. Pocos años más tarde encontramos otra referencia, esta vez de Gernika, donde se informa del *aurresku* bailado por “*el señor alcalde D. Diego de Anitua con la virtuosa y amable señora D<sup>a</sup> Jesusa Allende Salazar, hija de los Señores Condes de Montefuerte, distinguiéndose en estos “aurrescus” el joven abogado D. Teodoro de Arana, y sobre todo el incansable bailarín D. Domingo Canala Echevarria*”<sup>19</sup>.

En el barrio de Ondiz en Leioa, en el banquete celebrado por Antonio de Basagoiti, ilustre personaje de la época, en obsequio de sus amigos indica que “*el veterano diputado señor Arrola hizo un aurresku que fue muy aplaudido*”<sup>20</sup>. Debíó de ser buen *aurreskulari*, pues en



*konde-kondesén alaba Jesusa Allende Salazar andre bertutetsu eta adeitsuarekin, eta aurreku hauetan Teodoro de Arana abokatu gaztea eta, batez ere, Domingo Canala Echevarria dantzari nekaezina nabarmendu ziren*" (19).

Leioako Ondiz auzoan, Antonio de Basagoitik, garaiko pertsona garrantzitsu batek, lagunentzat egin zuen oturuntza baten inguruan, hau kontatzen da: "Arrola diputatu jaun beteranoak aurreku bat egin zuen, txalo ugari jaso zuena" (20). Antza denez, aurrekulari fina izan zen; izan ere, 1899. urtean "probin-tziako diputatu Ildefonso Arrola jaunak, José María Iturria atzesku zuela" Getxon dantzatu zuen aurrekuaren berri eman zen (21). Santurtzin, udal-epaileak edo Portugaleteko alkate ohiak dantzatu-tako aurrekuak aipatzen dira.

1900. urtean, Markinako plazan bertako pertsona garrantzitsuak dantzatu ziren, eta kronistak honela dio: "Meza amaitutakoan, Mugartegui abokatu gazteak aurreku dantzatu zuen, eta haren anaiak, atzesku, bien aita Federico jauna buru zela alkate gisa, bera ere horrelakoetan aritua izana garai batean arte eta trebezia handiekin. Katean, dantzariekin batera, handikiak zeuden, Suinaga, Murga, Areizaga, Churruca, Mugartegui, Gaitan, Gortazar eta beste andereño eder batzuk lagun zituztela" (22). Geroago, aurrekularia, Mugartegui jauna, herriko alkatea ere izan zen.

1899 al informar del *aurreku* bailado en Getxo se le nombra de nuevo "por el diputado provincial, don Ildefonso Arrola, llevando de "atzesku" don José María Iturria"<sup>21</sup>. De Santurce se informa de un *aurreku* bailado por el Juez Municipal y por el ex-alcalde de Portugalete.

En 1900, se recoge que en la plaza de la villa de Markina, bailan los personajes importantes de la localidad: "Concluida la misa se bailó el *aurreku* por el joven abogado señor Mugartegui y el atzesku por su hermano, presidiendo como alcalde el padre de ambos, don Federico, que en sus tiempos también ejecutó dicho acto con gran lucidez y habilidad. En la cadena acompañaban a los bailarines la plana mayor, siendo servidos por las bellas señoritas Suinaga, Murga, Areizaga, Churruca, Mugartegui, Gaitan, Gortazar, etc. etc"<sup>22</sup> (con posterioridad el *aurrekulari* señor Mugartegui, también fue alcalde de la villa).

En otra referencia de Gernika se da cuenta de que en una fiesta organizada en honor del señor Allende Salazar, a la sazón ministro del Gobierno en Madrid: "en este momento recorre las calles de la villa un *aurreku*, cuya mano lleva el señor alcalde, bailando el *achesku* el diputado a Cortes por Arpeitia señor Arana"<sup>23</sup>.

Estos *aurrekus* de cierta significación dirigidas por hombres no son sino una





Gernikako beste artikulu batean, orduan Madrilgo gobernuko ministroa zela eta, Allende Salazar jaunaren oho-rez antolatu zen jai bati buruz honako hau kontatzen zaigu: “*une horretan aurreku bat zebilen herriko kaleetan zehar, alkate jauna aurreku zela, eta atzeskuan dantzari, Arana jauna, Azpeitiko diputatua Gortean*”<sup>(23)</sup>.

Nolabaiteko garrantzi soziala zuten eta gizonek zuzentzen zituzten aurrekuen zerrenda luze hau. Edonola ere, Bizkaiko herri guztietako jaietan dantzatzen ziren ezin konta ahal horien guztiz lagin txikia izan da. Sarri, geroko erromerien hastapen gisa dantzatzen ziren; bandek, danbolinek eta beste musika-tresna batzuek girotzen zituzten erromeriak. Gehienetan korroetan, eta “itsu-korroak” edo dantza motzak deituta askotan –aurrekuei, ordea, dantza luzea esanda–, dantza “askatu” eta “lotuek” osatzen zituzten jai-dantzak. Jarraian, beraz, aurrekuen bi deskribapen aurkeztuko ditugu, interesgarriak iruditu baitzaizkigu, parte hartu zuten pertsonak edo gauzatu ziren era aintzat hartuta.

Lehena Balmasedan egin zen. Zorro-tza eta Balmaseda arteko Cadaguako trenbide berriaren lanak bukatutakoan, eta inaugurazioaren bezperan, Victor Chávarrik, trenbide horretako administrazio-kontseiluko buru eta Bizkaiko industria-iraultzan eragina izan

pequeñísima muestra del gran número que en todas las localidades de Bizkaia se bailaban como arranque de las romerías, animadas por bandas, tamborileros y otros instrumentos, generalmente en corro conocidos como *corros de ciegos o bailes cortos*, frente a los denominados *baile largo del aurreku*, en los que los bailes a lo “suelto” y al “agarrao” completaban la danza festiva. Además de los ya mencionados, queremos añadir dos *aurrekus* más que nos han parecido interesantes por la personalidad de sus integrantes y la forma en que se desarrollaron.

La primera de Balmaseda. Una vez finalizadas las obras del nuevo ferrocarril del Cadagua, entre Zorroza y Balmaseda, y en vísperas de su inauguración, el industrial Victor Chávarri, presidente de su consejo de administración, (construyó para vivienda, junto a su hermano el hermoso edificio de la bilbaína plaza Elíptica o de Moyua, ocupado actualmente por la Subdelegación del Gobierno en Bizkaia), organizó un viaje en el tren como obsequio al señor Sagasta, en aquel momento ex-presidente del Consejo de Ministros y a distinguidas personalidades de la época. El reportero del Noticiero Bilbaíno, que junto a otros periodistas participó en la expedición, después de describir el viaje, a su llegada a Balmaseda relata los festejos que se organizan: “*después de visitar la iglesia, se bailó en la plaza*



zuen gizon itzaltsuak (hark eginarazi zuen, anaiarekin batera, Bilboko Plaza Eliptikoan –hots, Moyua plazan– dagoen eraikin ederra eta gaur egun gobernu zentralaren Bizkaiko ordezkariaren egoitza dena), bidai bat antolatu zuen trenbide berrian, Ministro Kontseiluko buru ohi Sagasta jaunarekiko adeitasunez, garaiko hainbat pertsona garrantzitsu lagun zituztela. *El Noticiero Bilbatino* egunkariko erredaktorea beste kazetari batzuekin batera izan zen espedizio hartan, eta, bidaia, Balmasedako iritsiera nahiz antolatutako ospakizunak deskribatu ondoren, hau diosku: “*éliza bisitatu eta gero, plazan aurreku eder eta alai bat dantzatu zen, soka osatzen zutela jarraigoko pertsona gehienek: senatariek, diputatuek, kazetariak, eta abarrek. Jarraigoko kide agurgarriok, Victor Chavarri jauna tartean zela, Balmasedako andereño ederren eta dotoreenak atera zituzten bikotekide. Aurreku eta atzesku dantzatu ziren jaunen andereño bikotekideak Sagasta jaunaren ondoan jarri ziren, eta hark zinez atsegin handiz ikusi zuen ikuskizuna udaletxeko harmailetatik. Dantza alai eta bizi horren ondoren, jai ederraren amaiera ezin egokiagoa izan baitzen, jarraigoa trenera abiatu zen, balmasedar herria txaloka eta bibaka ari zitzaion bitartean*”<sup>(24)</sup>. Enpresaburu handiek ere, hala nola Victor Chávarrik, 36 urte zituela, aurrekuetan parte hartzen zuten. Ez da harritzekoa, haren jaioterrian ere, Portugaleten, agintariak dantzatzen baitzi-

*un bonito y alegre aurreku, formando la cuerda la mayor parte de las personas que componían la comitiva, senadores, diputados, periodistas, etc. Las parejas, que las componían las señoritas más bellas y elegantes de Balmaseda, fueron sacadas por dos respetables individuos de la comitiva, uno de ellos D. Victor Chavarri. Las dos señoritas que tuvieron de pareja a los dos caballeros que bailaron el aurreku y auchescu fueron colocadas junto al Señor Sagasta, quien verdaderamente entusiasmado presenciaba el espectáculo desde las escaleras de la Casa Consistorial. Después de tan alegre y animado baile, que fue digno remate de tan hermosa fiesta, la comitiva se dirigió al tren entre las aclamaciones y los vivas del pueblo balmasedano*”<sup>24</sup>. Los grandes empresarios de la época, como Victor Chávarri, a sus 36 años, participaban en los *aurrekus*, hecho que no es de extrañar, puesto que, en su villa natal, Portugalete, también bailaban las autoridades, a los que habría visto realizarlo más de una vez.

La segunda se refiere a las ceremonias que se realizaron con motivo de la sustitución del Árbol Viejo de Gernika por un retoño el 26 de febrero de 1859. Participaron el Diputado General y el Ayuntamiento de Gernika en pleno. El periódico *Irurac Bat* describe, entre otros acontecimientos, lo siguiente: “*No paró aquí la expansión de los habitantes de Guernica, puesto que por la tarde se reunieron en la plaza, y tomando parte*





ren eta behin baino gehiagotan ikusiko baitzituen halakoak dantza hori egiten.

Bigarrena Gernikako arbola zahar-  
ren orde, 1859ko otsailaren 26an,  
haren kimu bat landatzean egin ziren  
zeremoniei dagokie. Ahalduen nagusiak  
eta Gernikako Udalak parte hartu zu-  
ten, eta *Irurac Bat* egunkariak honako  
gertakizun hauek deskribatu zituen,  
besteak beste: “Ez zen hor gelditu Ger-  
nikako bizilagunen ospakizuna; izan ere,  
arratsaldean plazan bildu, eta, pertsona  
printzipaleneke parte hartuta, aurreku  
bat dantzatu zuten, Valentín de Ecena-  
rro jauna aurreku zela, eta Antonio de  
Ozamiz jauna, atzesku, José de Urquijo  
jaunak eta José Solaegui jaunak, Ger-  
nikako eta Lumoko alkateek, dantza  
zerbitzatu zutelara. Eskutik helduta eta  
ia andre eta andereño guztiekin batera,  
danbolina aurretik zihoala, Antigua-  
ra igo ziren, eta han, Gernikako arbola  
zahararen inguruan jarrita eta jaunek  
kapelak erantsita, begirunerik sakonena  
agertu eta gero, Ozamiz jaunak zortziko  
artetsu bat kantatu zuen haritz donearen  
omenez, eta jendetzaren txaloak jaso zi-  
tuen. Agerraldi berberak egin zitzaizkion  
arbola berriari, eta dantzari-taldea alaia  
berehala jantzi zen herriko plazara, non  
berriz ere dantzatu baitzen”<sup>(25)</sup>. Benetan  
interesgarria da sokadantza edo aurre-  
ku baten deskribapen hau, eratutako  
soka kaleetan zehar joan, eta haritz  
sakratuak inguratuta.

*las personas más principales bailaron un aurreku, llevando la primera mano D. Valentín de Ecenarro, y el autsescu D. Antonio de Ozamiz, y sirviendo el baile los alcaldes de Guernica y Luno, D. José de Urquijo y D. José Solaegui. Asidos de las manos y formando tanda con casi todas las señoras y señoritas, y precedidos del tamboril subieron a la Antigua, en donde rodeando el árbol primitivo y descubriéndose los caballeros, después de manifiestarle la veneración más profunda, entonó el señor Ozamiz un gracioso zortziko en honra del roble santo, zortziko que fue aplaudido por la multitud. Las mismas demostraciones se hicieron al nuevo árbol, y bajó enseguida la alegre tanda de bailarines a la plaza de la villa, donde bailó de nuevo”<sup>25</sup>. Es verdaderamente interesante esta descripción de que la soka dantza o aurreku, al mencionar que la cuerda formada se desplaza por las calles y rodea a los robles sagrados.*

El recorrido de la cuerda de danzantes por las calles del pueblo es costumbre que ya recogía Juan Ignacio de Iztueta en su descripción de las danzas guipuzcoanas, y, actualmente, se puede ver en el *Aurreku Santanero* de Ordizia así como en algunas de las descripciones que hemos encontrado. Por ejemplo en la fiesta de Gernika, antes mencionada, en honor del ministro Allende Salazar, se dice que: “recorre las calles de la villa un aurreku” y también en una comida celebrada en Sarrikobaso, Getxo, por



Dantzari-soka herriko kaleetan zehar ibiltzea J. I. Iztuetak Gipuzkoako dantzen deskribapenean jaso zuen ohitura bat da, eta gaur egun Ordiziako Santaneroen aurreskuan ikus daiteke, bai eta aurkitu ditugun zenbait deskribapenetan ere. Esaterako, Gernikan, Allende Salazar ministroaren ohoretan, lehen aipatu den eginiko jaiari buruz esaten da “*aurresku bat zebilela herriko kaleetan zehar*”, edo Sarrikobason (Getxo) garrantzi handiko hainbat pertsonak, kanpotarrak eta atzerritarrak lagun ziztuztela, egin zuten oturuntza baten inguruan, honako hau azaltzen da: “*handik, eta eskutik helduta, Getxoko landan sartu ziren, aurresku bat dantzatzan betiko danbolinaren hotsera, eta ondoren, beste batzuk*”<sup>(26)</sup>. Orozkon, hau kontatzen da: “*prozesioaren ondoren, parroquia horren inguruetatik aurresku tradizionala abiatuko da, herriko gazteek parte hartuta, eta plazan amaituko da*”<sup>(27)</sup>. Mundakan, antza, ohikoa zen, honako hau esaten baita: “*egitarau osoa bete zen. Aurreskuak nabarmendu ziren, Mundakako aurresku tipikoa batik bat. Hura kalerik kale ibiliz dantzatzan da, sokara andereño txanbelinak aterata, koloreko jantzi polit eta diskretu batzuk daramatzatela, bakearen eta bertutearen seinale*”<sup>(28)</sup>.

Interesgarria da ikustea nolako bizitasuna gordetzen zuen artean sokadantza edo aurreskuak Bizkaian, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran. Hain zuzen ere, pertsona nagusiek

personajes importantes, acompañados de forasteros y extranjeros que “*desde allí, y asidos de la mano, entraron en la campa de Guecho bailando un aurresku al compás del tradicional tamboril, al que siguieron otros*”<sup>26</sup>. De Orozko se recoge que “*después de la procesión, saldrá de las inmediaciones de dicha parroquia el tradicional aurresku, en el que tomarán parte jóvenes de la localidad y terminarán en la plaza*”<sup>27</sup>. Un hecho que, en Mundaka, al parecer, era corriente: “*se cumplió todo el programa. Sobresaliendo los aurreskus, especialmente el típico mundaqués que se baila corriendo las calles, sacando a la cuerda a las lindas señoritas, ataviadas con bonitos y discretos trajes del color que representa la paz y la virtud*”<sup>28</sup>.

Es interesante incidir en la vitalidad que aún mantenía la soka dantza o aurresku en Bizkaia a finales del siglo XIX y principios del XX. No solamente participaban adultos sino también niños, como en Bermeo que, en más de una ocasión lo hacían al finalizar el curso escolar, tras el reparto de premios, o en Lekeitio, en 1895, en el que el aurresku fue realizado “*por varios niños, de los cuales el que más apenas se contaría diez primaveras*”<sup>29</sup>.

A los que hay que añadir las dirigidas por las mujeres como veremos a continuación, en que presentamos un número importante de aurreskus en



ez ezik, haurrek ere parte hartzen zuten, hala nola Bermeon (han, behin baino gehiagotan, ikasturtea amaitzean egiten zuten, sari banaketan), edo Lekeition, non 1895ean aurrekuia egin baitzuten “*hainbat umek, nagusiena ozta-ozta hamar urtekoa izango zela*”<sup>(29)</sup>.

Gehitu behar dugu emakumeek ere zuzentzen zituztela aurrekuia, hurren ikusiko dugunez, halakoen mordoxka bat aurkeztuko dugu eta. Hasteko, Bermeon 1885eko ekainean egin zen aurrekuia bat aipatuko dugu. Hemen ere dantzari-soka herrian zehar doala ikusten dugu, plazan aurrekuia amaitu

femenino. Comenzaremos por un aurrekuia bailado en Bermeo en junio de 1885. Aquí, vemos también la cuerda de *dantzaris* recorriendo el pueblo, una vez finalizado el *aurrekuia* en la plaza: “*El día 27 por la tarde una nutrida salva de cobetes anunciará la salida de la música a dar el paseo anunciando la fiesta. La mañana del día de San Pedro harán el tradicional aurrekuia las muchas jóvenes que se dedican al gobierno de la pesca; las cuales, en número de setenta u ochenta, irán precedidas de la música desde el puerto a la plaza, ostentando todas ellas un traje claro con sus pañuelitos rosa al cuello, excitando de esta manera la curio-*



Andren-aurrekuia plazan, Bermeo. Agiritegia / Archivo Alkartasuna Dantza Taldea



eta gero: “Hilaren 27an, arratsaldean, suziri-sorta oparo batek musikaren irteera iragarriko du, jaia aldarrikatzeko paseora. San Pedro eguneko goizean, aurreku tradizionala egingo dute arrantza-bizimoduan diharduten neska ugariak. Halako hirurogeita hamar edo lauwoegi, bada, musika aurrean doala, portutik plazara joango dira, guztiek jantzi argi bat soinean, eta zapitxo arrosak lepoan; horrela, bertan direnen ikusmina piztuko dute. Aurrekua egin eta gero, bikoteki-deak eta musika lagun, abiatu egingo dira, eta herrian zehar ibiliko, abiapuntura itzuli arte”<sup>(30)</sup>. Zinezko ikuskizun bat, tradizio zoragarri bat islatzen duena. XX. mendeko lehen laurdenaren emakumeen aurrekuaren argazki batzuk gordetzen dira, herri horretakoak.

Garai horretako prentsan jaso ziren emakumeek zuzendutako beste aurreku batzuk dira jarraian aurkeztuko ditugunak. Nazioarteko eta politika-arloko informazio luze eta zabala ematen zuten, eta mugatuago tokiko gaien aldetik prentsan jasotakoak dira soilik; hortaz, logikoa da pentsatzea askoz gehiago izango zirela errealitatean. Barakaldon, Bengolea landan eginiko Santa Luziako erromerian, 1884. urteari dagokionez hau dago jasota: “aurreku ugari dantzatu ziren itzel baino itzelago, erretiratzeko deia iritsi zen arte; nabarmendu egin zen oso neska atsegin eta txanbelin batzuek maisutasun finez dantzatutako bat”<sup>(31)</sup>. Handik bi urtera,

*sidad de los concurrentes; y después de haber hecho el aurreku, marcharán con sus parejas y la música, recorriendo el pueblo y volviendo a parar al mismo punto de partida*<sup>30</sup>. Verdaderamente un espectáculo que representa una magnífica tradición y que también fue reproducida en varias fotografías del primer cuarto del siglo XX.

Otros aurrekus dirigidos por mujeres que reúne la prensa de la época son los que mostraremos a continuación. Únicamente los que recogen los periódicos de información internacional y política amplia, y limitada en lo local, por lo que es lógico pensar que realmente serían muchos más. En Barakaldo, en la romería de Santa Lucia celebrada en el campo de Bengolea, se recoge en 1884, “*menudeando los aurrekus hasta el toque de retirada que era un portento; habiendo llamado mucho la atención uno que fue bailado con delicada maestría por una serie de simpáticas y bellas jóvenes*”<sup>31</sup>. Dos años más tarde, en la celebrada en Matamoros, en otra carta de Barakaldo, refiriéndose a los trinos, fusas y semifusas del tamborilero, añade el articulista, “*se conoce que el numeroso público no se apercibió de lo mucho que trinaban dos pollas baracaldesas que por toda aquella tardecita esperaban con ansia ver, aunque no hubiera sido más, la oreja del distinguido músico, para que las hubiera servido con un aurreku y algunas de las predichas variaciones*; Que salga bien parado



Barakaldoko beste gutun batean, Matamorosen eginiko erromeriari buruz danbolinaren trillo, fusa eta fusaerdiez ari dela, hau gehitzen du kronistak: “*jende ugaria ez bide zen konturatu Barakaldoko bi oilanda nola ari ziren txio-kloka, arratsalde guztia eman baitzuten irrikaz musikari entzutetsuaren belarria bederen ikustearren –gehiagorik ezin bazen– aurreku bat eta lehen aipatutako aldaeretako batzuk eskain ziezazkien. Onik atera dadila musikari oharkabe eta sorgorak oilanda horien eskutik zain zitu- en atzaparketatik! Horixe opa dio lerro hauek idazten ari denak!*”<sup>(32)</sup>.

Bilboko emakumeen aurrekuen berri ere ematen da. Interesgarriak dira hiriko azoka-plazako emakume saltzaileek egin zituztenei buruzko bi erreferentzia. Bat 1884koa da. Kronistak abenduaren 25ean aditzera ematen digunez, “*tradizioari jarraituz, atzo goizaldean azoka-plazako arrain-saltzaileek dago- kien aurrekua egin zuten, eta gero dant- zari lotu zitzaizkion goizeko zortziak arte*”<sup>(33)</sup>. Informazio horretaz baliatu zen Manuel Basas historialaria artikulua bat idazteko gertakari horren mende- urenean. Haren izenburua, “*El aurreku en nochebuena de las pescadoras de la villa*” («Hiriko arrain-saltzaileen aurre- kua Gabon-egunean») <sup>(34)</sup>. Gero egiten duen iruzkinaren arabera, badirudi ez zeuzkala irakurrita J.I. Iztuetaren lanak; izan ere, “gizon-dantzaz” gain (Basasek ere hala izendatzen du), emakume eta

*de los arañazos que esperaba de dichas po- llas el impertérito ausente músico, es lo que le desea, quien estas líneas escribe!*”<sup>32</sup>.

También se informa de los *aurrekus* de mujeres bilbaínas. Son interesantes dos que realizaron las vendedoras de la plaza del mercado de la villa. La primera de 1884. El cronista informa que el día 25 de diciembre “*siguiendo la tradición, ayer de madrugada las vendedoras de pescado en la plaza del mercado hicieron el correspondiente “aurreku”, continuando después bailando hasta las ocho de la mañana*”<sup>33</sup>. Este dato sirvió al historiador Manuel Basas para escribir un artículo periodístico en el centenario de este hecho titulado “*El aurreku en nochebuena de las pescadoras de la villa*”<sup>34</sup>. Por el comentario que añade parece que no había leído a Juan Ignacio Iztueta, que nombraba además de la *gizon dantza* o danza de hombres, como la denomina también Basas, la danza dirigida por mujeres y muchachas, continuando así con la teoría más extendida de que la cuerda estaba dirigida por ellos anota: “*acudieran sus maridos y familiares, que serían los que las irían invitando a incorporarse a la rueda de bailarines*”. Como ya hemos indicado, en la fecha que escribe Basas, ésta era la teoría más generalizada entre muchos folkloristas, sin tener en cuenta la realidad histórica. La segunda es de 1892, que con motivo de haber conseguido del Ayuntamiento que se les rebajara el impuesto sobre los





nesken zuzendaritzapean ere deskribatu zuen dantza Iztuetak. Hala, teoria hedatuenari jarraitu zion, alegia, aurreku hau gizonetzkoek zuzentzen bide zutela: “*senarrak zein familiakoak joango ziren, eta haiexek gonbidatuko zituzten dantzari-biribilarekin bat egitera*”. Lehen ere esan dugunez, Basasek idatzi zue-nean, horixe zen gehien orokortutako teoria garaiko folklorista askoren artean, errealitate historikoa kontuan izan gabe. Bestea 1892koa da, salmenta-postuen gaineko zerga igo eta gero, Udalak jais-tea lortu izana ospatu zutenekoa. Hala, informazio hau eman zen: “*arratsaldean, danbolinaz gain, itsu-korroak izan ziren udaletxe zaharraren aurrean eta okinen garai bateko pabiloian, eta han ibili ziren pozarren olgetan saltzaileak, aurrekua egiten, jota dantzatzen*”<sup>(35)</sup>.

Ez dira Bilbon topatu ditugun erreferentzia bakarrak. XX. mendearen hasieran, Bilboko nekazarien ospakizunak, Abandoko elizatea anexionatu ondoren, Done Bikendi plazan, edo Begoñakoak, hango Errepublikan plazan, aurrekuarekin amaitzen ziren, meza burututakoan. Abandon, 1908an, egin zen ospakizunari buruz, honako hau eman zen aditzera: “*hurren, hiru aurreku dantzatu ziren plazan, nekazariena bat, neskatilena beste bat, eta hirugarrena umeez dantzatu zuten*”<sup>(36)</sup>.

Euzko Gaztedik antolatu zituen lehen jaiak ere elizkizunek eta bertako estiloko

puestos de venta subido con anterioridad, se informa que, “*por la tarde, además del tamboril, hubo corros de ciegos frente a la antigua Casa Consistorial y en el antiguo pabellón de las panaderas, y allí se divertieron alegremente las vendedoras haciendo el aurreku, bailando la jota*”<sup>35</sup>.

No son las únicas referencias que en Bilbao encontramos sobre el aurreku. A principios del siglo XX las celebraciones de los labradores de las anteiglesias vecinas como la anexionada Abando, en la plaza frente a la iglesia de San Vicente, o en Begoña, en su plaza de la República finalizaban con el *aurreku*, tras la misa. En la celebración de Abando, en 1908, se informa que, “*a continuación se bailaron tres aurrekus en la plaza, uno de Labradores, otro de muchachas y el tercero por niños*”<sup>36</sup>.

En las primeras fiestas que organiza Juventud Vasca (PNV) consistentes en funciones religiosas y romerías al uso del país. En 1907, se indica “*bailando el aurreku de honor varias jóvenes*”<sup>37</sup>. En Etxebarri, con motivo de la bendición e inauguración de la bandera del batzoki, se informa que, “*terminada la ceremonia religiosa, varias señoritas de Echevarri bailaron en la plaza un aurreku, que resultó muy bonito*”<sup>38</sup>. No solamente los nacionalistas, también los carlistas, en sus mítines, realizaban bailes. En una celebrada en Dima, se informa, que





Aurreskua, Begoñako errepublika plazan / Aurresku en la plaza de la Republica, Begoña 1900.  
F/ Eulalia Abaitua. © Euskal Museoa ABA0029

erromeriek osatzen zituzten. 1907an antolatatu nahi zuten bati buruz, esaten da: “ohorezko aurreskua hainbat neskek dantzatuko dute”<sup>(37)</sup>. Etxebarrin, batzokiko banderaren bedeinkapena eta inaugurazioa zirela eta, hau kontatu zen: “*elizkizuna amaitu, eta Etxebarriko andereño batzuek aurresku bat dantzatu zuten plazan, oso polita*”<sup>(38)</sup>. Abertzaleek ez ezik, karlistek ere dantzak egiten zituzten beren mitinetan. Diman egin zuten baten inguruan, horren berri ematen da: “*mitina amaitu ondoren, hainbat andereñoek aurresku bat dantzatu zuten*”<sup>(39)</sup>.

“*terminado el mitin, se bailó por varias señoritas un aurresku*”<sup>39</sup>.

Son muchos más los pueblos en los que las mujeres dirigen el *aurresku*. En un programa de fiestas de Elorrio, de 1914 se dice: “*se bailará un aurresku por lindas y simpáticas “neskatillas*”<sup>40</sup>. En Güeñes “*todas las señoritas de la localidad estuvieron muy animadas y después de la función religiosa bailaron un aurresku, en el que tomaron parte honorables señores a los que premió la concurrencia con nutridos aplausos*”<sup>41</sup>. Los programas



Herri gehiagotan, emakumeek ere zuzentzen zituzten aurreskuak. Eloorrioko 1914.ko jai-egitarau batean, hau zehazten zen: “*neskatila txanbelin eta atsegin batzuek aurresku bat dantzatuko dute*”<sup>(40)</sup>. Gueñesi buruzko berrietan, hau ematen da aditzera: “*herriko andereño guztiak gogotsu agertu ziren, eta, elizkizunaren ondoren, aurresku bat*

de fiestas de San Román, en Muxika, muestran que “*terminada la Misa se bailará un “aurresku” de honor por las distinguidas señoritas de la localidad*”.<sup>42</sup> De Zeanuri se cuenta que tocó el tamboril el decano de los tamborileros de Bizkaia, “*y su esposa, que cuenta 77 años, hizo un aurresku, desempeñando su papel mejor que muchas de 20*”<sup>43</sup>.



Muxika. Agiritegia / Archivo Iñaki Irigoien

*dantzatu zuten, non hainbat jaun agurgarrrik parte hartu baitzuten, ikusleen txalo-zaparrada saritzat hartuta*”<sup>(41)</sup>. Muxika - San Romaneko jaien egitarauak hau zioen: “*meza amaitu, eta oho-rezko aurresku bat dantzatuko dute herriko andereño apainek*”<sup>(42)</sup>. Zeanurin,

Añadimos los comentarios que, sobre los bailes festivos, realiza en 1884 el informante de Portugalete, que muestra el ambiente de la época: “*Nada más se me ocurre que sea digno de especial mención, si no considero como tal la observación que me hizo un amigo de que a*



kontatzen denez, Bizkaiko danbolin zaharrenak jo zuen, “*eta haren emazteak, 77 urte dituela, aurresku bat egin zuen, 20 urteko askok baino hobeto*”<sup>(43)</sup>.

Interesgarriak dira Portugaleteko berrie-maileak, 1884an, jai-dantzei buruz egin zituen iruzkinak, garaiko giroa erakusten digute eta: “*Beste ezeren gainetik, bereziki aipagarria iruditzen zait adiskide batek esan zidana, dantza modernorako zaletasuna areagotu ahala, biziagoa dela bertako dantza zaharrei gur egiteko gogoia. Hamaika izan dira askotariko pertsonen dantzatutako aurreskuak, baina, merezita, atentzioa eman du zortzi neskatila politek dantzatutakoak, buruan txapel gorri bereizgarri eta ikusgarria jantzita, beren itxurarekin ikusle lasai askoren beste buru batzuk aztoratzen zituztela. Begira ezazu, esan zuen militar beterano batek, etsai izugarri bat, halako grazia duen armada bat, txapela eskuinaldera okertuta*”<sup>(44)</sup>. Bost urte lehenago ere hau esaten zen: “*hamaika aurresku egin ziren, gizarteko mota guztietako pertsonen dantzatutakoak, adin eta sexu batekoak eta besteak bereizi gabe*”<sup>(45)</sup>. Ikusten dugu Portugaletekoak aurreskua dantzatzen zaleak zirela oso, gizonezkoek zein andrazkoek zuzenduta.

Emakumeek aurreskuak zuzentzen zituzten Plentzian ere; 1885ean: “*dantzatu ziren aurreskuen artean, deigarri gertatu zen Milagros Anduiza andereñoak zuzendutakoa, txaloak ugari jaso*

*medida que aumenta la afición al baile moderno, hay más afán por rendir culto a los antiguos bailes del país. Numerosísimos han sido los aurrescus bailados por diversas clases de personas; pero ha llamado merecidamente la atención el que danzaron ocho lindísimas pollas que, luciendo en sus cabezas la vistosa y característica boina roja, trastornaban con su aspecto otras cabezas de muchos pacíficos espectadores. Vea usted, dijo un veterano militar, un enemigo terrible, un ejército con tal donaire, con la boina, tirada hacia la derecha*”<sup>44</sup>. Cinco años antes, también se hablaba de “*los innumerables aurrescus que se sucedieron, bailados por individuos de todas las clases de la Sociedad sin distinción de edades ni sexos*”<sup>45</sup>. Vemos que los de Portugalete eran muy aficionados a bailar el *aurresku*, tanto dirigidos por hombres como por mujeres.

Otra población en la que las mujeres dirigían el *aurresku* fue Plentzia, como en 1885 “*entre los aurrescus que se bailaron llamó la atención el dirigido por la señorita Milagros Anduiza, que recibió numerosísimos aplausos*”<sup>46</sup>. No solamente bailaban las plencianas, tres años antes se menciona: “*una de las bellísimas simpáticas forasteras hizo un aurrescu, habiendo acudido a la cuerda cuarenta y cinco jóvenes, a cual más bellas*”<sup>47</sup>. Y también cuando salían de su villa como en 1888 cuando fueron a la romería de San Ignacio en Laukariz: “*fueron las fes-*



zituen eta”<sup>(46)</sup>. Herrikoek ez ezik, hiru urte lehenago “kanpotar neska polit eta atseginetako batek ere aurreku bat egin zuen, sokara berrogeita bost gazte batuta, zein baino zein ederragoak”<sup>(47)</sup>. Jaioteritik irtetzen zirenean ere dantzatzen ziren, esaterako, “plentziar neska alaiak”, 1888an, San Ignazioko erromeria joan ziren, Laukarizera, “eta arratsaldean handikiro sartu ziren bertara; handik gutxira, hiriko alkateari aurreku bat eskatu zioten, eta Arruza jaunak”, ... “atseginez onartu zuen berehalako aurrekuia, nahiz eta lehenago hori eta beste batzuk onartuak zituen. Zortzikoa hastean, bada, hamaika plentziar andereño aurkeztu ziren, jendetzaren arreta guztiz erakarrira, halakoak non, lore-sorta ez, baizik eta lorategi bat eratzen baitzuten, loreen ugaritasuna eta askotarikotasuna zela eta” ... “zegokion korroan dantzatzuz hainbat mutili atsegin eman eta gero...”<sup>(48)</sup>. Nabaria dirudi emakumeek aurreku zuzentzen zihardutela eta jaietan ongi pasatzen zutela.

Jarraitu egingo dugu horren ebidentziak hona ekartzen, errepikakorra iruditu arren, gertakari bakanak ez zirela azpimarratze aldera, gure herrietan oso zabaldukoak baizik. 1884. urtean argitaratutako Algortako gutun batek ikuspegi ezin hobea ematen digu Getxoko auzoetako jaiari buruz. Gazteluko erromeriari dagokionez, gutunean hau esaten da: “izugarri atsegin izan zitzaidan adin txikiko neskatila batzuek dan-

*tivas plencianas y en ella entraron por la tarde triunfalmente, poco después pedían un “aurreku” al señor alcalde de la villa, y el Sr. Arruza (...) concedió complacido el inmediato “aurreku” aunque con anterioridad había otorgado aquel y otros. Al principio, pues, el zortziko, se presentan, llamando poderosamente la atención de la multitud, hasta once señoritas plencianas, tales, que formaban no ya un ramillete, sino todo un improvisado jardín, por el número y variedad de las flores (...) después que favorecieron a unos cuantos jóvenes bailando el correspondiente “corro”<sup>48</sup>. Parece pues evidente que las mujeres dirigían el aurreku y se divertían en las fiestas.*

Seguiremos con la aportación de evidencias, a pesar de parecer repetitivos, con la intención de subrayar que no era un hecho aislado, sino general en nuestros pueblos. Una carta de Algorta, publicada en 1884, nos da una excelente visión de las fiestas de los barrios de Getxo. En la romería del Castillo, dice la carta que “*lo que me agradó sobremanera fue un zortzico bailado por niñas de tierna edad. Se puede asegurar que fue el zortzico mejor bailado en toda la tarde. La aurrekulari, linda niña de la familia de Uria, bailó con gran propiedad y soltura. ¡Un bravo a la hermosa polli-ta!*”<sup>49</sup>. Más adelante, nos informa de la romería junto al templo parroquial. En ella “*las jóvenes algorteanas bailaron un zortzico, y me hicieron la honra de*





tzatu zuten zortziko bat. Arratsalde osoko ondoen dantzatutako zortzikoa izan zela esan liteke. Aurrekularia Uria familiako neskatila polit bat izan zen, eta fintasunez nahiz trebetasunez dantzatu zen oso. Oso ongi neska txanbelinari!”<sup>(49)</sup>. Aurrerago, Getxoko parrokia-elizaren ondoko erromeriaren berri ematen digu. Han, “algortar neska gazteek zortziko bat dantzatu zuten, eta haiei lagun egiten lehena izateko ohorea egin zidaten. Han ikusi zen, ni kronista ona baldin banaiz, are dantzari hobea naizela. Apaltasuna apaltasun! María de Berretiaga eta Salvadora de Orioso neska ederrek gonbidatu ninduten, eta haixen besoei eutsiz sartu nintzen handikiro korroan. Jakin behar duzu lehena nire auzokidea dela, eta etengabe ikusi ohi dudala”; eta hau gehitzen du: “aipatutako gazteez gain, aurreku handian partaide izan ziren Prudencia de Ugarte, Ceferina de Urrechaga, Piedad Diez de Aresti, Carmen de Ugarte”... “eta izenez ezagutzen ez ditudan beste asko, nahiz eta haien aurpegiez eta abarrez ederto gogoratzen naizen”. Handik urte batzuetara ere, 1904an, aurreku deigarri baten berri eman zen. “Neska gazte eder batzuek dantzatu zuten, eta beren grazia bereziarekin aire zabalean egin ziren dantzen ukitu atsegigarriena eman zuten”<sup>(50)</sup>.

Garaiko egunkarien berriak aztertzen jarraituz, esan behar dugu informazio asko biltzen dutela bertako handikiek bisitatu ohi dituzten bainuetxeetatik

invitarme el primero a acompañarlas. Allí se vio que si soy buen cronista, soy todavía mejor bailarín. ¡Modestia a un lado! Fui invitado por las bellas María de Berretiaga y Salvadora de Orioso, y apoyado en sus hermosos brazos hice mi triunfal entrada en el corro. Advierto a usted que la primera es vecina mía, y que la veo a todas horas” (...) “además de las jóvenes citadas, tomaron parte en el gran aurreku Prudencia de Ugarte, Ceferina de Urrechaga, Piedad Diez de Aresti, Carmen de Ugarte”... “y otras muchas cuyos nombres ignoro, pero de cuyas caras, etc. etc., me acuerdo muy bien”. Pasados algunos años, en 1904, también se informa de otro aurreku que llamó la atención. “Fue bailado por lindísimas muchachas jóvenes, que con su gracia especial dieron la nota más simpática de los bailes celebrados al aire libre”<sup>50</sup>.

Siguiendo con las noticias de los periódicos de la época, se aprecia que hay muchas noticias sobre la vida en los distintos balnearios bizkainos a los que acudía la gente importante del país y de muchos otros lugares y en sus saraos y fiestas no faltan tampoco los aurrekus. En 1894 en el balneario de Urberuaga, Markina se celebró una fiesta: “primeramente los jóvenes bailaron algún aurreku, y luego lo hicieron las jóvenes, unos y otras con mucha maestría, y en medio de grandes aplausos. El aurreku lo hizo un joven de Elgueta, y el achesku otro de Oñate”<sup>51</sup>. Aunque la descripción





nahiz beste leku askotatik. Haien gaujai eta festetan ez dira falta aurrekuak. 1894. urtean, egun handi bat ospatu zen Urberuagako bainuetxean (Markina), eta festan *“lehenik, mutilek aurreku bat edo beste dantzatu zuten, eta gero, neskatilek, batzuek zein besteek maisutasun handiz eta txalo-zaparraden artean. Elgetako mutil bat izan zen aurreku, eta atzesku, Oñatiko beste bat”* <sup>(51)</sup>. Dena dela, deskribapen interesgarriena 1906ko gutun batek ematen digu. Hala, Urberuagako bainuetxean zeuden guztiak Markinara joan ziren, Santa Eufemiaren jaietara. *“Hiriko plazan, aurreku batzuk dantzatu ziren, eta haien artean aipatzea merezi du Ubilla-Urberuagako establezimenduko neskena, txalo ugariren hartzailea. Nicasiak dantzatu zuen aurrekua, eta atzeskua, Salomé, María, Lola, Paulina, Juanita, Toribia, bi Magdalena, Eugenia, Francisca, Josefa eta Guillerma lagun zituztela”* <sup>(52)</sup>. Bainu-hartzaileek ez ezik, neskak ere, zerbitzukoak pentsatzen dugu, olgatzten ziren aurrekua dantzatzen eta zuzentzen. Bainuetxean orobat, 1908an, dantzatu ziren *“aurreku bat andereñoena eta beste bat jaunena”* <sup>(53)</sup>.

Prentsaren arabera, Mundakan ere baziren neskatilen aurrekuak. Hala, 1891. urtean, Santarena zelaiko erromeria zela eta, hau ematen da aditzera: *“hara iritsi, eta ekin egin zioten danbolinaren hotsera aurreku bat dantzatzeari, beren herri-zaletasun garbiaren eredu ematearren,*

más interesante es la que nos ofrece una carta de 1906. Todos los que moraban en el balneario de Urberuaga, se desplazaron a Markina a las fiestas de Santa Eufemia. *“En la plaza de la villa se bailaron varios aurrekus, mereciendo citarse entre ellos el de las muchachas del establecimiento de Urberuaga de Ubilla, que fue muy aplaudido. Bailó el aurreku Nicasia y el atzesku Salomé, acompañándolas María, Lola, Paulina, Juanita, Toribia, dos Magdalenas, Eugenia, Francisca, Josefa y Guillerma”* <sup>52</sup>. No solamente los bañistas, también las muchachas, suponemos del servicio, se divertían bailando y dirigiendo el aurreku. En 1908 en el mismo balneario se referencia que: *“bailaron un aurreku las señoritas y otro los caballeros”* <sup>53</sup>.

Mundaka también tendrá *aurrekus* de muchachas. Así en 1891, en la romería de la campa de Santarena, se indica que *“tan pronto como llegaron a dicho lugar rompieron el fuego al son del tamboril con un aurreku, para dar ejemplo de su acendrado patriotismo, las bellas y simpáticas pollas mundaquesas, no decayendo el ánimo en los tres días consecutivos”* <sup>54</sup>. En este sentido es interesante la nota de 1911, en que *“las señoritas, luciendo vistosos y elegantes trajes, bailaron dos aurrekus, uno con jóvenes y otro con señores”* <sup>55</sup>. Lo más importante es que, estos señores, según la información de 1904 eran los componentes del ayuntamiento, dice así el cronista: *“al mediodía bailaron el*



*mundakar neskatila txanbelin eta atseginek, eta animoak ez zuen behera egin hurrengo hiru egunetan*”<sup>(54)</sup>. 1911ko oharrak: “*andereñoek, jantzi ikusgarri eta dotoreak zeramatzatela, bi aurreku dantzatu zituzten, bata mutilekin, eta bestea jaunekin*”<sup>(55)</sup>. Interesgarriena da jaun horiek, 1904ko informazioaren arabera, udalkideak direla; kronistak honela dio: “*eguerdian, zortzi neskatila politek aurreku dantzatu zuten, sokara udalbatza osoa aterata*”<sup>(56)</sup>. Ezin da herri batean aurreku bat egin, Mundakan “*neskatila politek*” egin zuten baino hotsandi nabariagoarekin, dantza udalbatzako kide guztiei eskainita.

Galdakaon ere aurkitzen dugu emakumeek garrantzi handiko pertsonen aurrean dantzatutako aurreku bat. 1910ean andre zaharrek dantzatutako aurrekuen berri ematen zaigu jada, baina datu adierazgarria 1916ko prentsan topatzen dugu. Sociedad General de Industria y Comercio eta Sociedad Española de Explosivos zirelakoek Galdakaon antolatutako jaiari buruz idazten du *La Gaceta del Norte* egunkariak. Idazkia ez ezik, lehen orrialdean argazki bat ere aurkezten digu, aurrekuko soka ageri dela, nahiz eta, eskutik helduta, bi emakumeren arteko gizon baten irudia bakarrik erakusten digun. Azken emakumeak ez dio inori helduten, eta atzeskularia dela esan dezakegu, beraz, areago gizonekoa nor den aditzera ematen bada. Argazki oinean hau jartzen

*aurreku ocho lindas jóvenes, que han sacado a la cuerda al municipio en pleno*”<sup>56</sup>. No se puede realizar, en una localidad, un *aurreku*, con más solemnidad que la que se realizó en Mundaka por las *lindas jóvenes*, obsequiando con la danza a todos los miembros de su ayuntamiento.

En Galdakao encontramos un *aurreku* bailado por mujeres ante personajes importantes. En 1910 se informa de *aurrekus* bailados por ancianas, pero el dato más significativo lo encontramos en la prensa de 1916 en torno a la fiesta organizada por la Sociedad General de Industria y Comercio y la Sociedad Española de Explosivos en Galdácano recogido por el periódico *La Gaceta del Norte*. No solamente es el artículo, sino que va acompañado de una fotografía en primera página, en la que figura la cuerda del *aurreku*, aunque solamente con la figura de un hombre entre dos mujeres cogidos de las manos. La última mujer no se enlaza con nadie, por lo que podemos decir que es la *atzeskulari*, máxime si se indica quien es el personaje masculino. Al pie de la fotografía se puede leer: “*Las grandes fiestas de ayer en Galdácano en honor de San Ignacio. El Señor administrador de la fábrica bailando el aurreku de honor*”. En el interior del periódico se da la noticia y de ello se deduce quien es el que figura junto a la *atzeskulari*, el administrador. Dice así la nota: “*Después de terminada la solemne función religiosa, en la plaza de la fábrica*



du: “Atzoko Galdakaoko jai handiak, San Ignazioaren omenez. Fabrikako administratzaile jauna ohorezko aurrekua dantzatzen”. Berria egunkariaren barrualdean ematen da, eta hartatik ondorioztatzen da atzeskulariaren ondoan ageri dena administratzailea dela. Oharrak honela dio: “Meza ospetsua amaitu eta gero, fabrikako plazan María Bustinza eta Micaela Landa langile gazteek ohorezko aurreku bat dantzatu zuten, zuzendari tekniko Juan Tronillot jauna eta administrazio-zuzendari Pedro Tour-

ca se bailó un aurreku de honor por las jóvenes obreras María Bustinza y Micaela Landa, acompañándolas el director técnico don Juan Tronillot y el director administrativo don Pedro Tournan”<sup>57</sup>. Verdaderamente interesante y clara, tanto la fotografía como la noticia. Las mujeres dirigían el *aurreku*, cuando muchos folkloristas de la época obviaban o escondían dicho protagonismo.

Otro artículo informa de *aurrekus* bailados en el Valle de Ayala. En el pueblo



Galdakao. *La Gaceta del Norte* 1916-08-01



*nan jauna lagun zituztela*”<sup>(57)</sup>. Benetan interesgarria eta argia, bai argazkia, bai berria. Emakumeek zuzentzen zuten aurrekuak, folklorista askok aditzera ematen digutenean emakumeek ez zutela parte hartzen halakoak zuzentzen.

Beste kronista batek ere Aiaraldean dantzatzeko ziren beste aurreku batzuen berri ematen digu. Lantenon, San Justo eta Pastoreko erromerian. Arrazoi pertsonalak zirela eta, kronistak erromeriatik alde egin behar izan zuen, eta horregatik nahigabetuta, gehitu zuen: *“hala, ez nuen ikusi neskatilek egiten duten aurreku ezin ospetsuagoa, zeina laudorio artean aipatu baitidate, ez eta, kontatu didatenez, bertan zirenek iritsi zuten gozamen eta algarazko egoera ere”*<sup>(58)</sup>. Hona ekarritako berri-sail hori ikusita, nabaria dirudi emakumeek ere zuzentzen zituztela aurrekuak, Bizkai osoan nahiz inguruko lurraldeetan. Datu historiko hauei umetan bizi nuen beste bat gehituko nieke, 1940ko hamarkadan, Ubide herrian, Bizkaian. Bertan dantbolin-jotzailerik ez, eta Otxandiokoa kontratatzen zen, eta haren soinuari, San Joan jaietako hirugarren egunean, emakumeek zuzendutako aurrekuak egiten ziren, plazaren erabilera beraiei zegokien eta. Garai hartan, Otxandion ere gertatzen zen gauza bera, jaietako hirugarren egunean dantzatuta, *“Kozinera egune”* deitutakoan, hain zuzen.

Datu historikoen amaiera gisa, guztietan interesgarriena eta adierazgarriena

de Llanteno, en la romería de San Justo y Pastor el cronista tuvo que abandonar la romería por motivos personales, lamentándose por ello y añadiendo: *“así es que no presencié el famosísimo aurreku hecho por muchachas, acerca del cual me han informado en medio de los mayores elogios, ni el transporte de júbilo y algazara a que me cuentan haberse entregado todos los concurrentes”*<sup>58</sup>. Después de esta serie de noticias aportadas parece evidente que las mujeres dirigían también el *aurreku*, realizándolo, al menos, en toda la extensión de Bizkaia y tierras limítrofes. A ello, añadiré el que he conocido personalmente por haberlo vivido en mi niñez. En la década de 1940, en el pueblo de Ubidea, no habiendo tamborilero en el lugar, se contrataba al de Otxandiano, y a su son, el tercer día de las fiestas de San Juan, se bailaban *aurrekus* dirigidos por las mujeres, ya que el uso de la plaza les pertenecía a ellas. En aquel tiempo, también se daba este hecho en la villa de Otxandiano, bailando dicho tercer día de sus fiestas, al cual denominaban *“Kozinera egune”*.

Para terminar, por ser el más interesante y significativo de todos, presentamos el *aurreku* celebrado en Abando en 1869. En él se muestra, de forma definitiva, que la danza dirigida por las mujeres, no solamente se ha ejecutado en los momentos finales de la fiesta, como dice Iztueta, *“cuando la gente de los pueblos vecinos, terminado el festival, va a*





izanik, Abandon 1869. urtean egin-dako aurrekuia aurkeztuko dugu. Han behin betiko frogatzen da emakumeek zuzendutako dantza ez zela egiten jaie-tako azken uneetan soilik, Joan Ignazio Iztuetak jasotzen duenez: “*jostailua bukatu-rik, auzo-herrietako jendea etxe-raztean lehendabiziko arratsaldean, herri bereko etxeandre prestuak egiten dutena, beren senar maiteai aditzera emateko ezik, gizon arrotzak begira zeudela ez zutela nahi izan agertu dantzako jakin-duria*”<sup>(59)</sup>, edo sukaldariei eskainitako azken egunean, herri batzuetan ikusi dugunez, une solemneago batzuetan ere bai, non emakume gazteek pertso-na garrantzitsuak omentzen zituzten. Hona ekarriko dugu 1869ko *Irurac bat* egunkariak dioena, Olabeagan, Aban-doko elizatearen aldean, eraikitako kaperaren bedeinkapenaz informatzean (itsasadarraren bestaldeko bazterra be-zala, hura ere Olabeaga deitua, Deus-tukoa, 1925ean Bilbora anexionatu-tako herria ere). “*Horren harira, jai bat izan zen, eta udala nahiz probintziako gobernadora joan ziren. Bedeinkape-naren eta meza ospetsuaren ondoren, hogeita hamar mahaikiderentzako baz-kari bat zerbitzatu zen, eta aurreku batzuk dantzatu ziren, horietako bat bi erriberetako alaba ederrenek egina. Hain zuzen, azken horiek Tosantos gobernado-re jauna eta Zugasti alkate jauna sartu zituzten dantzari-biribilera, bai eta bes-te pertsona batzuk ere, eta ez zuten beste irtenbiderik izan, beren seriotasuna alde batera utzi baino, danbolinaren soinu-uan*

*sus casas, para dar a entender a sus caros maridos que, al hallarse ante los ojos de hombres extraños, no quisieron manifestar su destreza en la danza*”<sup>59</sup>, o el último día dedicado a las cocineras, como ya hemos recogido, sino también en momentos más solemnes en los que las jóvenes homenajean a personajes importantes. Reproducimos lo que dice el periódico *Irurac bat* de 1869 al informarnos de la bendición de la capilla levantada en Olaveaga, de la parte de la Anteiglesia de Abando hoy anexionado a Bilbao, frente a la de la otra orilla, también denominada Olaveaga y perteneciente en su día a Deusto. “*Con tal motivo hubo una fiesta a la que asistió el municipio y el señor gobernador de la provincia. Después de la bendición y misa solemne, se sirvió una comida de treinta cubiertos y por la tarde se bailaron varios aurrekus, uno de ellos por las agraciadas hijas de ambas riberas, las cuales metieron en rueda al gobernador Sr. Tosantos, al alcalde Sr. Zugasti y a otros individuos, que no tuvieron más remedio que colgar su gravedad para hacer piruetas al son del tamboril, lo cual les valió estrepitosos aplausos. Al terminar la tarde acabó la fiesta, dando el alcalde vivas al corregidor de Vizcaya, a los fueros y a la república de Abando y otros los dieron al Sr. Zugasti.*”<sup>60</sup>. Por la descripción es evidente que el Gobernador de la provincia, por ello también Corregidor, fue homenajeadado, al igual que el alcalde de la Anteiglesia, al tomar parte en la danza. Éste es el *aurreku* de





*artaziak egiteko. Horren ordainetan, txalo-hots ozenak jaso zituzten. Arratsaldearen amaieran jaia azkendu zen, eta alkateak bibak eskaini zizkion Bizkaiko korrejidoreari, foruei eta Abandoko errepublikari, eta beste batzuek, Zugasti jaunari”* <sup>(60)</sup>. Deskribapenaren arabera, nabaria da probintziako gobernadore eta, hortaz, Bizkaiko korrejidoreari omenaldia egin zitzaiola, bai eta elizateko alkateari ere, dantzan parte hartzean. Hori da Bizkaian aurkitu dugun emakumeek zuzendutako hotsandi goreneko soka-aurrekua, parte hartu zuten pertsona ospetsuak aintzat hartzen baditugu. Horrek argi eta garbi erakusten digu emakumeak ere protagonismoa hartu izan duela aurreku erritualetan honetan, gizonen zuzendutakoetan arretaren eta adeitasunaren objektu hutsa izan gabe, gure ohituren aztertzaile askok aditzera eman dutenez. Halakoak ikertzaile entzutetsuak izan arren, lehen esan dugunez

Hurren, emakumeek zuzendutako aurrekuak berriz ere egiten ari diren aurrekeztu aurretik, emakumeen parte-hartze hori egiaztatzen duen beste gertakari bat ezagutuko dugu, alegia, egindako lehiaketetan emakumeek izan zuten protagonismoa. Gure herria apustuak eta lehiaketak egiten oso zalea izan da, espezialitate bakoitzean onena zein den ebazteko. Dantzan ere halaxe gertatu da. Batzuetan, Antoine d’Abaddiek abian jarri eta sustaturiko Euskal Jaietan bezala, galtzeko nolabaiteko arriskuan zeuden

cuerda más solemne, dirigido por mujeres, que hemos encontrado en Bizkaia, si tenemos en cuenta las personalidades que tomaron parte en el mismo. Claro ejemplo de que la mujer también ha sido protagonista en este tipo de danza ritual, no siendo mero objeto de atención y obsequio en aquellos dirigidos por hombres, como se ha manifestado por muchos estudiosos de nuestras costumbres, aún siendo prestigiosos investigadores, como ya se ha indicado.

A continuación, antes de presentar los pueblos que en la actualidad están recuperando el aurreku dirigido por mujeres vamos a conocer otro hecho que confirma esta participación. Son los concursos de aurreku en las que ellas fueron protagonistas. Nuestro pueblo siempre ha sido dado a las apuestas y a los desafíos para dirimir al mejor en cada especialidad. En la danza también ha sido así. A veces, como en las Fiestas Euskaras que inicio y fomentó Antoine T. d’Abaddie, con la idea de promocionar las costumbres que corrían cierto peligro de perderse en 1851. Con ello, vemos que fueron cogiendo fuerza los concursos de *aurrekularis* en casi todas nuestras fiestas, a veces, en menoscabo de los clásicos *aurrekus* de cuerda. Por ejemplo, eran y siguen siendo corrientes en el día de San Roque junto a su ermita en Rekalde, a la que acudía la corporación bilbaína. En 1894, informa el periódico que “*a las cuatro de la tarde*



ohiturak bultzatzeko asmoz. Horrekin, ikusten dugu aurrekulari-lehiaketak boladan jarriz joan zirela ia gure jai guztietan, zenbaitetan, soka-aurreku klasi-koen kaltetan. Adibidez, ohikoak ziren, eta badira oraindik, San Roke egunean, haren baselizaren ondoan, Errekaldeko auzoan; Bilboko Udalbatza ere hara joaten zen. 1894. urtean, egunkariak jakinarazten digunez, “*arratsaldeko lauretan aurrekulari-lehiaketa egin zen. Zazpi bikotek parte hartu zuten, gizonen lauk eta emakumezkoen hiruk. Jendetza handia izan zen hura ikusten, eta epaimahaia zinegotzi jaunek osatzen zuten ... lehen saria, hamabost pezetakoa, aho batez esleitu zitzaion Antolín Zubizarretari, eta bigarrena, hamar pezetakoa, María de Urquijori, aho batez hura ere*”<sup>(61)</sup>. Geroko urteetan ere aurrekuak iragartzen jarraitzen da, 1908an aditzera ematen denez, “*gizonentzat, emakumeentzat eta 60 urtetik gorako gizonetako zein emakumezko adindunentzat*”. San Rokeren jaieren ondoren ematen den informazioan, hau azaltzen da: “*emakumeentzako aurreku-lehiaketara Fidela Azcuenaga eta Francisca Echevarria aurkeztu ziren, 15 eta 14 urtekoak, eta 1. eta 2. sariak eraman zituzten, hurrenez hurren*”<sup>(62)</sup>.

Mungian ere diruzko sariak iragarri ziren, “*aurreku bat ondoen dantzatzen duten gazteentzat, epaimahai aditu baten iritziz*”, eta hainbat eskabide jaso ziren, “*halakoen artean, josletzan diharduten neska fin batzuen*”<sup>(63)</sup>. Ondizko erromerien iragarkia argiagoa eta

*se verificó el concurso de aureskularis, tomando en él parte siete parejas, cuatro de varones y tres de hembras. El acto fue presenciado por un gentío numerosísimo; el jurado lo componían los señores concejales*”<sup>(61)</sup>(...) *El primer premio, consistente en quince pesetas, le fue adjudicado por unanimidad a Antolín Zubizarreta, y el segundo, de diez pesetas, a María de Urquijo, también por unanimidad*. En años sucesivos se siguen anunciando aurrekus, como en 1908, “*para hombres, mujeres, ancianos y ancianas de más de 60 años*”. En la información que se da después de la fiesta de San Roque, se indica que, “*en el concurso de aurreku para mujeres se presentaron Fidela Azcuenaga y Francisca Echevarria, de 15 y 14 años llevándose los premios 1º y 2º respectivamente*”<sup>(62)</sup>.

En Mungia, también se anunciaron premios en metálico “*a los jóvenes que mejor bailen un aurreku, a juicio de un tribunal competente*”, recibiendo varias solicitudes, “*entre ellas una de varias distinguidas jóvenes del gremio del hilván*”<sup>(63)</sup>. El anuncio de las romerías de Ondiz, Leioa, es más claro y radical: “*terminada la misa, concurso de aureskularis, sólo para hembras, en la campa inmediata a la ermita, adjudicándose un premio de 10 pesetas*”<sup>(64)</sup>. Así figura en la nota, siendo clara la palabra escrita en femenino, “*hembras*”. Otros pueblos celebran concursos, añadiendo, a veces,



zorrotzagoa da: “*meza amaitu ondoren, aurrekulari-lehiaketa, emakumeentzat bakarrik, basilizaren ondoko landan, 10 pezetako sari batekin*”<sup>(64)</sup>. Horrelaxe jartzen du oharrean, argi dagoela “hembras” idatzitako hitza. Beste herri batzuetan ere egiten ziren lehiaketak, zenbaitetan, gizonentzat eta emakumeentzat zehaztuta, hala nola Galdakaon 1910ean edo Basaurin 1917an.

Nabarmendu behar dugu, 1905ean, Euzko Gaztedik, sortu eta hurrengo urtean, Euskalduna pilotalekuan antolatu zuen lehen jaialdian, San Ignazio Loiolakoaren eguna ospatzeko, “*aurreskulari-lehiaketa bat egin zela, non 59 urtetik gorako emakume adindunek parte hartzen baitzuten, 50, 25 eta 25 pezetako sariekin. Lehiaketara zazpi emakume adindun aurkeztu ziren, eta 50 pezetako saria Eugenia Guerineagak eskuratu zuen, 72 urtekoa bera; 25 pezetakoa, Josefa Larruceak, 62 urtekoa; eta 25 pezetako beste saria, Balbina Múgicak, 84 urtekoa*”<sup>(65)</sup>. Adierazgarria da hori; izan ere, geroago, aurrerantzean ere (harik eta altxamendu frankista gertatu zen arte) Euzko Gaztedik egun horretan egiten zituen dantzari-erakustaldi handietan ez dugu ikusten emakumeek zuzendutako aurrekuen erreferentzia askorik. Diktadura luzearen garaian ere ez, ezta ere geroztik. Antza denez, hasieran aipatu diren folklorista horien iritziak eta XIX. mendean ideal burgesak gizarte eredu gisa ezarritako rolak ez zuten horretarako biderik eman.

para hombres y mujeres, como en Galdakao en 1910 o en Basauri en 1917.

Destacaríamos, que, en 1905, al año siguiente de la fundación de Juventud Vasca, organiza el primer festival en el frontón Euskalduna, para conmemorar la festividad de San Ignacio de Loyola: “*se celebró el concurso de aurrekularis, en el que sólo tomaban parte ancianas mayores de 59 años, y para el que había premios de 50, 25 y 25 pesetas. (...) Presentáronse al concurso siete ancianas, obteniendo el premio de 50 pesetas Eugenia Guerineaga, de 72 año; el de 25 Josefa Larrucea, de 62; y el otro de 25 Balbina Múgica, de 84*”<sup>65</sup>. Es significativo este dato, pues posteriormente, en los grandes alardes de *dantzaris*, que siguió celebrando Juventud Vasca hasta el inicio del levantamiento franquista, no encontramos referencias de *aurrekus* dirigidos por mujeres. Tampoco durante la larga dictadura ni siquiera en la transición, al mantenerse todavía en vigor la opinión de los folkloristas mencionados al principio y principalmente por la existencia de un modelo social patriarcal implantado por el ideal burgués decimonónico.



Jostunak Berrizeko San Pedro Txiki ermitaren aurrean aureskua dantzatzen / Auresku de modistillas ante la ermita de San Pedro Txiki, Berriz 1934. F. Indalecio Ojanguren. AGG-GAO\_JSM02350.



## Emakumeek zuzendutako aurrekuak Bizkaian gaur egun.

Historia ez ezik, egungo errealitatea ere bai; Durangaldeko Garai herrian gertatzen da, eta han ez zaio inoiz utzi emakumeek zuzendutako aurreku tradizionala dantzatzeari, Santa Anaren egunean batik bat. Halaber, Oiz mendia inguruko beste herri batzuetan ere egin izana gordetzen da gogoan. Ez zaio eutsi ohitura horri Euskal Herriko beste alde batzuetan, nahiz eta, J. I. Iztuetaren garaian, Gipuzkoan nahikoa errotutako usadioa zen.

**Garai** herriko jaiak Santiago eta Santa Ana egunetan ospatzen ditu. Duela zenbait mende dokumentaturik dago jaietan zortzi gaztek osatutako talde batek parte hartzen duela, Dantzari Dantza edo Ezpata Dantza dantzatzeko, eta saioari amaiera emateko, “Erregelak” esaten dioten aurreku tradizionala dantzatzen dutela. Santa Ana egunean, dantza-saioa errepikatzen dute, baina hura amaitutakoan, emakumeek hartzen dute plaza, haiek sokadantza zuzentzeko, gizonak gonbidatuz eta haiei dantzatzuz. Parte hartu nahi dutenak bildu ondoren, ezkonduak gehienetan, ilara batean irteten dira; aurrekularia izaten dute buru, “Erregelak” direlakoei dagokien doinu tradizionalaren pausoak eginez, gizonen

## Los aurrekus dirigidos por mujeres en Bizkaia hoy en día.

En el devenir del aurreku hay algunas excepciones históricas como la de Garai, un pueblo del duranguesado donde nunca se ha dejado de bailar el tradicional *aurreku* dirigido por las mujeres, especialmente en el día de Santa Ana, tradición que también se recuerda en otros pueblos del entorno del monte Oiz aunque no se haya mantenido de igual manera y, se haya perdido en otras de Euskal Herria a pesar de que en tiempos de J.I. Iztueta, según nos indica en su libro era costumbre bastante arraigada en Gipuzkoa.

**Garai** celebra sus fiestas patronales los días de Santiago y Santa Ana. Desde hace siglos está documentada la participación en sus fiestas de un grupo de ocho jóvenes bailando la *Dantzari Dantza o Ezpata dantza*, finalizando su actuación con el tradicional *aurreku* que denominan *Erregelak*. El día de Santa Ana repiten actuación, pero una vez han concluido, son las mujeres las que toman la plaza para dirigir, ahora ellas, la danza de cuerda, invitando y bailando a los hombres. Una vez reunidas las que desean tomar parte, normalmente casadas, salen en una fila dirigidas por la *aurrekulari* o primera mano, que va marcando los pasos de la tradi-





pausoen oso antzekoak, erloju-orratzen noranzkoaren kontra beti. Gero, atzeskularia jartzen du sokaren buru, berari dagokion doinua dantzatzuz. Laguntzaileek, plazan diren gizonen artetik, dantzarien bikotekide izango direnak aukeratu eta ateratzen dituzte; halakoen aurrean dantzatzen dira, bada, lehenik aurrekulariaren bikotekideari, eta gero, atzeskulariarenari. Dantza amaituta, eskutik heltzen diete, eta, mokorkada jartzeko imintzioa egin ondoren, haiekin joaten dira sokan beren tokia bete dezaten. Eta hura zuzentzen jarraitzen dute. Hurren, gainerako parte-hartzaileen-tzako gizonak bilatu eta gehitzen dira,

cional melodía de *Erregelak*, con pasos bastante similares a los de los hombres, siempre circulando en sentido contrario a las agujas del reloj. Después se coloca la *atzeskulari* o *última mano* al frente de la cuerda, bailando la melodía que le corresponde a ella. Las ayudantes seleccionan y sacan de entre los hombres que se encuentran en la plaza aquellos que van a ser parejas de las danzarinas, frente a los cuales danzan las dos, primero al de la *aurrekulari* y después al de la *atzeskulari*. Una vez finalizada la danza les cogen de la mano y después de un simulacro de culada van con ellos a ocupar su puesto en la cuerda que si-



Garai. F/ Iñaki Irigoien



eta azkenean ilara luze bat eratzen dute, gizonak eta emakumeak tarteka doazela. Amaitzeko, korro handi batean, taldeko guztiek fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dituzte, eta beste txikiago batean, aurrekulari eta atzeskulari aritu diren bi emakumeek beren bikotekideekin. Biribilketa handi batekin ematen diote azkena, eta hura amaitzen da denak udaletxeko atarian sartuz eta azken solairuraino igoz; han, mokadu bat zerbitzatzeko diete parte-hartzaileei.

**Lekeitio** da emakumeen sokadantza bat oraindik gordetzen duen Bizkaiko beste herri bat, nahiz eta, esanenez, aldizka etenak izan dituen. 1682ko datu batek, jada, aditzera ematen digu halakoa existitzen zela, esaten baitzuen, gizonen dantzekin batera, “*neskatilen dantzak ere*”<sup>(66)</sup> bazirela San Joan eta arrantzaleen zaindari San Pedroren jaietan. Urte asko geroago, XIX. mendearen erdialdean, berriz ere badiugu datu batzuk, jaietan neskak dantzatzeko direla esaten digutenak. Hala, 1856ko ordainagiri batean, Udalaren ordainketa hau jasotzen da: “*San Joan eta San Pedro egunetako bi goiz eta bi arratsaldeetako mokaduak ordaintzeko, ohituraenez dantzako neskatilei ematen zaizkienak*”<sup>(67)</sup>. San Antolin zaindariaren jaietan ere sartu zen dantza. Hala dago jasota 1904ko egitarauan, irailaren 14an “*herriko neskatila batzuek aurreku klasiko bat*”<sup>(68)</sup> dantzatzeko zuten-eta. Hurrengo urtean jai

guen dirigiendo. Seguidamente se buscan e incorporan hombres para el resto de las participantes, terminando por formar una gran fila donde se intercalan hombres y mujeres, para finalizar bailando en un gran corro, *fandango* y *arin-arin* y en uno más reducido las dos mujeres que han bailado de *aurrekulari* y *atzeskulari* con sus correspondientes parejas. Terminan con una gran *biribilketa* que finaliza entrando todos por el portal del Ayuntamiento y subiendo al último piso del mismo donde se sirve un refresco a los participantes.

**Lekeitio** es otro pueblo que conserva, una *soka dantza* de mujeres histórica, aunque en este caso con interrupciones temporales. Un dato de 1682 certifica su existencia al decirnos que junto a danzas de hombres “*hay también danzas de mozas*”<sup>66</sup> en las fiestas de San Juan y San Pedro, patrón de los *arrantzales*. A mediados del siglo XIX, volvemos a encontrar datos que nos hablan de muchachas bailando en estas fiestas. Así en un recibo de 1856, existe el pago municipal “*para los refrescos de las dos mañanas y las dos tardes los días de San Juan y San Pedro de las muchachas del baile según costumbre*”<sup>67</sup>. También fue incorporada la danza a las fiestas patronales de San Antolín. Así lo recoge un programa de 1904, en el que el día 4 de septiembre se baila, un “*aurreku clásico por varias jóvenes de la localidad*”<sup>68</sup>. Al año siguiente, en las mismas fiestas, se



